

## Kultura

Durangoko Azokak euskal kulturaren alde “inurri lana” egin dutenak omenduko ditu Argizaiola sariagaz > 13



**AZAROAK  
25**

## Esperantza eta bizi emaileak

Marta Prieto ezinbesteko bihurtu zen bere neba Alainen leuzemia osatzeko, zelula amak emanda. Ostera, gaixo batzuek ez dute senide bateragarriarik, eta jende anonimoarengan dute esperantza. Mikel Gomez eta Izaro Martinez dira anonimo horietako bi. > 4-5




Lehior Elorriaga

## Argindarra ordaindu ezin duten 71 familiari lagundu die JAEDek

JAED elkarteak gaur zabalduko du Gabonetako tonbola Durangoko Andra Marian, urtarrilaren 8ra arte. Zozketa solidarioa beharrezkoa da, datuek erakusten dutenez. 71 familiari argindarra eta gasa ordaintzeko laguntza eman diete; guztira, 131 familiak jaso dute laguntza ekonomikoren bat. Gainera, 331 etxetara heldu da JAEDek emandako jatekoa. > 3

*“Aurten beste pauso bat eman gura dut; elite mailan ere ondo aritzea dut helburu”*

Jon Munitxa | Ziklo-kros txirrindularia > 23



**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria



PSE 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

**Anbotorenlagunak** Azterketa eta bi erradiografiak doan

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - [uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

### Abadiño > 6

Garbiren isurketak iker ditzala eskatu dio udalak Jauriaritzari

### Durangaldea > 8

Kalean lo egiten duten pertsonen kontaketa egin dute 19 boluntariok

### Berriz > 10

Sindikatuak atxikimendua eman diote Berton Bertokoari

### Mañaria > 11

Kartzela zigorra jaso dezaketen langile bi babestu dituzte



## Herririk herri

# Zara eta Mangoren aurkako giza katea deitu dute, errefuxiatuen alde egiteko

Errefuxiatuen aldeko taldeak dioenez, adingabeko errefuxiatuak Zara eta Mangorentzat dabilta lanean



San Fausto jaietako erreka jaitsieran burututako ekimena.

**DURANGO** Markel Onaindia Bihar, 12:00etan hasita, errefuxiatuei babesa erakusteko aldarrikapenak berriro hartuko du Durango. Kasu honetan, Zara eta Mango enpresen aurkako giza kate batez egingo dute, Alde Zaharrean dituzten dendak lotuko dituen. Izan ere, Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak adierazi du adingabeko errefuxiatuak Zara eta Mangorentzat lanean dabiltzala Turkiako hainbat arropa fabrikatan. Egoera hori publikoki salatzeke, protestara deitu du mugimenduak.

Albistearen berri BBC telebista kate britainiarrek eman zuen. Bertan kontatutako datu batzuk zabaldu ditu plataformak, umeen lan baldintzen inguruan hausnartzera gonbidatzeko: "Haurrek 12 orduko

txandetan egiten dute egunero lan, ordu bakoitzeko euro eskas bat irabazita".

Ez da Mango enpresa errefuxiatuen egoeraz lotzen duten lehen aldia. Urri amaieran, Durangoko dendako erakustokian errefuxiatuen aldeko pintadak agertu ziren, inork sinatu barik zeudenak.

### Haurren eguna

Durangon uztaillean sortu zuten errefuxiatuen aldeko plataformak, eta geroztik ekintza ugari prestatu dituzte. Esaterako, hileko lehen zapatuetan elkarretaratzea egiten dute, 12:00etan, Andra Marian. Errefuxiatuen egoeraz informatu gura dute, eta elkartasuna zabaldu. "Errefuxiatuen bizi baldintzak izugarri latzak badira ere, oraindik latzagoak dira adingabeko neska-mutil errefuxiatuen kasuan", esan dute plataformakoek sare sozialetan zabaldutako oharrean.

Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna egingo da asteburuan, eta horren harira deitu dute biharko elkarretaratzea.

## Diru-laguntzak emango dizkiete enpresei langabeak kontratatuz gero

Lanbidetik datozen 117.000 eurogaz Bizkaiko enpresei lagunduko die udalak

**DURANGO** Joseba Derteano Lanbidetik datozen 117.000 eurogaz Bizkaiko enpresei lagunduko die udalak, herriko langabeak hartuz gero. Egitasmoak helburu bi ditu: enpresei euren lantaldeak handitzeko erraztasunak eskaintzea, eta Durangoko langabeei lan merkatura sartzeko aukerak zabaltea.

Enpresentzat baldintza batzuk ezarri dira. Gutxienez hiru hilabeteko eta lanaldi osoko kontratuak egin behar dituzte; kontratazioek enplegu gordina

sortu behar dute; ezin dira izan prestakuntza kontratuak edo ikasketa kontratuak. Diru-laguntza eskabideak abenduaren 2ra arte egin daitezke, Durangoko udaleko arreta zerbitzuan.

"Enpleguaren esparruan ditugun eskumenak txikiak dira, baina gure betebeharra arlo horretan ere ahal dugun guztia egitea da", adierazi zuen Aitziber Irigoras alkateak proiektuaren aurkezpenean. Egitasmoak lan eskariaren eta eskaintzaren arteko zubi lana egiteko aukera

eskaintzen duela azaldu du Pilar Ríos alkateordeak: "Argi utzi gura dugu Durangoko langabe bakoitza kezka bat dela udalarentzat. Era berean, kontziente gara enpresek euren lan taldeak handitzeko dituzten arazoez".

### Iaz, %80 Durangokoak

Iazko lehen edizioan hamabost eskaera jaso zituzten. Horieta hamahiru onartu zituzten. Denak Durangaldeko enpresek izan ziren, %80 Durangokoak.

## Zabor bilketaren tasa %2,5 igoko dute 2017an

Zergarik gehienak bere horretan utziko ditu udalak

**DURANGO** M.O.

2017rako zerga eta tasarik gehienak bere horretan utzi ditu Durangoko Udalak, salbuespen bi eginda: zaborrarena eta higiezinena -katastroaren aldaketa-gatik etorri dena-. Datorren urtean, durangarrek %2,5 gehiago ordaindu beharko dute zabor bilketagatik.

Joan zen asteko osoko bilkura berezian onartu zituzten 2017ko ordenantza fiskalak, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoagaz, EH Bildu eta Herriaren

Eskubidearen abstentzioagaz eta PPren aurkako botoagaz. EH Bilduk 23 ekarpen egin, eta 17 onartu zituen gobernuak; zabor bilketarena bat. Koalizioaren arabera, zerbitzua hobetzea beharrezkoa da, eta diru gehiago inbertitzea da horretarako bidea. "Auzoak ahaztu" egiten direla kritikatu zuen Herriaren Eskubideak.

Gobernua osatzen duten EAJk eta PSE-EEk gainerako zergak mantentzeari garrantzia eman zioten.

**anboto**

komunikabideak  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko azaroaren 18a  
15. urtea - 654. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urtiaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
eta Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du





## 331 familiari eman die jaten JAED elkarteak Durangon eta Iurretan

Argindarra eta gasa ordaindu ezin duten 71 familiak diru-laguntza jaso dute



Gaur 18:00etan zabalduko dute standa, 55.000 txartel salgai dituztela.

**DURANGO** Markel Onaindia Gabon bueltako giro solidario eta baikorraren hasieraren seinale izan ohi da JAEDen tonbola zabaltzea. Gaurtik aurrera, gehien behar dutenei laguntzeko zozketa martxan egongo da Andra Marian, urtarilaren 8ra arte. Hala ere, prentsari emandako datuek ilusioaren geriz-

pean dagoen errealitate gordina islatzen dute. Aurtan 331 familiari eman die jaten JAEDek, euren baliabideekin ezin dutelako elikagai nahikorik erosi.

Gainera, argindarra eta gasa ordaindu ezin duten 71 familiak jaso dute pobrezia energetikoari aurre egiteko laguntza ekonomikoa; guztira, 16.000 euro.

Bestelako diru-laguntzak kontatuta, 130.000 euro eman ditu.

Bestalde, larrialdi egoeran daudenentzat salbazio bihurtzen da JAED. Etorkinen kasuan, adibidez, udaleko larrialdiko diru-laguntza jasotzeko sei hilez erroldatuta egon behar dute, baina batzuek ezin dute horrenbeste itxaron.

## Horma eraikita, katuei jaten ematea saihestu gura dute

**DURANGO** J. Guenetxea Arandoño Torre kalean, behinola Txorizoro diskoteka zegoen orubean, jendeak katuei jaten ematen diela-eta, auzokideek hainbat bider helarazi dute kexa udalera. Sardina buruak, saltxitxak eta bestelako elikagaiak erruz botatzen dizkie jendeak katuei. Ondorioz, janari hori desegiten doan heinean, hatsa "jasanezina" dela diote bertan bizi direnek. Auzokideek diotenez, udalak azaldu die orube hori jabe parti-

kular batena izanda, ezin duela ezer egin.

Bada, orain, Durangoko Udalak jakitera eman duenez, prozesua martxan jarri du orubearen jabeak 2,3 metroko blokeko horma eraiki dezan, barrura sartzeko itxidura duen ate eta guzti. Jabeagaz zuzenean ezin izan dutenez berba egin, prozesua martxan jarri dute. "Espediente amaitzen denean agindutakoa betetzen ez badu, udalak egingo du, behartuta dagoenaren kontu".



Arandoño Torre kalean auzokideak kexu dira katuei jaten ematen dietelako.

**DURANGO** A.E.

Klimari buruzko Goi Bilera burutu zuten joan zen asteburuan Marrakexen (Maroko), eta Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen. Tartean, Durangoko adibideak ipini zituzten hemengo garapenaren inguruan informatzeko.

Udalak oharra bidali du, Durangoko lana "eredu" izan dela esanez bilera horretan. 2009an aldaketa klimatikoari aurre egiteko ordenantza onartu zuen, eta ildo hori garatzeko programa bat ere lantzen du udalak.

2020ra begira, energia berri-erreserba gehitzea eta motorrik bako mugikortasunaren

## Marrakexeko klima aldaketaren bileran Durango aipatu dute

Durangoko adibideak ipini ditu Eusko Jaurlaritzak bere berbaldian



Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Marrakexeko bileran.

alde lan egitea dira Durangon zehaztutako lerroetako batzuk, udal arduradunek oharrean azaldu dutenez.

Ordenantza onartu zuten, eta ildo hori garatzeko programa bat ere lantzen du udalak

**Iaz, saria jasota**

Bestalde, iaz, nazioarteko Compact of Mayors topaketan saria jaso zuen Durangoko Udalak, ingurumenaren arloan egindako lanagatik.

**katerin ardoak**  
**inaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delikatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**Azaroaren 24ean, osteguna, 19:00etan**  
Hitz liburudendako berriekiera ospakizuna: musika, bertsoak...

**hitz**  
liburudenda

hitz zaharrak hitz berria dakar

artekalea, 23 durango • 946 810 776 • info@hitzliburudenda.com



**ERREPORTAJEA** M. Onaindia  
**Leuzemia edo odole-**  
**ko minbizia duten pertso-**  
**nen sendabiderako auke-**  
**retako bat da zelula amak**  
**transplantatzea. Zelulak he-**  
**zur-muinetik hartzen dira,**  
**edo txertoekin gorputzean**  
**barreiatu ostean odoletik ate-**  
**ra -hauxe ohikoena-. Gaixo**  
**askok ez dute emaille izateko**  
**senide bateragarririk eduki-**  
**tzen, eta pertsona anonimoen**  
**borondatearen esku geratzen**  
**dira. Izaro Martinez Mendiola-**  
**garai zaldibartarra eta Mikel**  
**Gomez Agirrebeitia abadiña-**  
**rra dira emaille anonimo horie-**  
**tako bi; bateragarria den nor-**  
**baitek behar duenerako, hor**  
**daude. Tabu eta desinforma-**  
**zioen gainetik, emaille izatea**  
**gauza erraza dela diote.**

**Zergatik erabaki zenuten**  
**emaille bihurtzea?**

**Izaro Martinez:** Etxetik da-  
 torkit. Nire amak [Zaldibarko  
 alkate izandako Idoia Mendi-  
 lagarai] leuzemia eduki zuen,  
 eta horrek bultzatu ninduen.  
 Hurretik ikusi nuen zer gerta-  
 tzen den, zelan pasatzen duzun  
 zain zaudenean. Berari ez zi-  
 tzaion ondo atera; emaille edu-  
 ki zuen, eta hasierako hile bie-  
 tan ondo joan zen. Baina gero  
 birus bat hartu, eta ez zen ir-  
 ten horretatik. Berak ez zuen  
 zortetik eduki, baina besteren  
 batek zortea badu eta bizi ahal  
 bada... Emaille izatea erabaki  
 nuen, ahal izanez gero beste ba-  
 ti laguntzeko.

**Mikel Gomez:** Duela zortzi ur-  
 tetik odol-emaille naiz. Bertan,  
 anbulategian galdetu nuen, eta  
 Interneten informazioa begira-  
 tzen hasi nintzen. Paper batzuk  
 eman zizkidaten, eta azalpen  
 batzuk ere bai. Keinu txiki ba-  
 tegaz emaitza polita lortu ahal  
 zela ikusi nuen.

**Beste pertsona baten biziaz**  
**berbetan gabiltza...**

**I.M.:** Merezi du. Guk ez dugu  
 ezer sufritu behar, azken ba-  
 tean, dialisi bat da. Asko jota,



## “Zuk ez duzu ia ezer ematen, eta apur horregaz bizi bat salbatu dezakezu”

Gaixorik daudenei zelula amak emateko prest daudenetako bi dira Izaro Martinez eta Mikel Gomez

txertoengatik gripea lako sen-  
 tsazioak eduki ditzakezu. Bai-  
 na beste pertsona batek bizia  
 galdu ahal du; beraz, irabazi

“  
**Zenbat eta**  
**pertsona gehiago**  
**egon prest, orduan**  
**eta probabilitate**  
**handiagoa”**

ahal denagatik, merezi du. Zor-  
 tea, deituz gero, ze 500 emaille-  
 tik bat izaten da bateragarria.

**M.G.:** Horregatik da garran-  
 tzitsua. Zenbat eta pertsona  
 gehiago egon prest, orduan eta  
 probabilitate handiagoa egon-  
 go da gaixo batek emaille edu-  
 kitzeko.

**Ingurukoekin berba egin du-**  
**zue gaiaz?**

**I.M.:** Familian gehienok gara  
 emailleak; hurretik tokatu eta  
 sensibilizatuta zaude. Koadri-  
 lako jendeari eta ezagunei ‘bu-  
 rua berotu’ diet. Gainera, Fa-

cebookeko zenbait taldetan  
 ere banago. Zuk ez duzu ia ezer  
 ematen, eta apur horregaz bizi  
 bat salbatu ahal duzu.

“  
**Ezjakintasuna**  
**dagoela igartzen**  
**dut, egin behar**  
**ote dizutenaren**  
**inguruan”**

**M.G.:** Duela urte bi egin nin-  
 tzen emaille, eta, egia esan, ez-  
 jakintasun itzela dagoela igar-  
 tzen dut, egin behar ote dizute-  
 naren inguruan. Jende artean  
 berba eginda zabaldu dadila  
 gaia. Oso sinplea da.

**I.M.:** Jendeak uste dut bizka-  
 rra ziztatzen dizutela hezur-  
 -muina barik, ospitalean egon  
 beharko duzula, lanera joan  
 ezinda... Ez da horrela. Kasu ja-  
 kin batzuetan muinetik atera-  
 tzen dizute, eta, horrela bada,  
 asko jota egun bat eman deza-  
 kezu ospitalean. Baina hezur-  
 -muina errekuperatu egiten



Fitoren motoaren zozketa egin dute La Cuadri del Hospikoek.

## Bizia dakarren lagun koadrila

**DURANGO** M.O.

Minbiziaren sozializazioan,  
 ikerketaren bultzadan eta  
 emaillearen sustapenean mugi-  
 mendu zabal bat dabil, batez  
 ere La Cuadri del Hospi elkar-  
 teak piztuta. Gurutzetako ospi-  
 talean minbizia duten haurren  
 gurasoek osatzen dute elkar-  
 tea, eta lanean hasi direnetik,  
 tabu ziren hainbat gai ez dira  
 horrenbeste gaur egun. El-  
 kartasun olatu itzela sortu da,  
 bizia dakarren koadrila horrek  
 hauspotuta.

Maratoi solidarioak, zumba  
 saioak, kontzertuak, errifak...  
 ekintza horien bidez minbizia  
 kalera atera dute, eta ikerke-  
 tarako dirua batzeaz gainera,

“Minbizia duen ume bat  
 ikusten duzu zure  
 artean, eta zelan ez  
 diozu, ba, lagunduko?”

emailleak egiten ere lagundu  
 dute. Iaz Durango goitik behe-  
 ra busti zuen Marea Laranja  
 deituriko jaialdiak; ehunka he-  
 rritar eta komertzio batu ziren  
 dinamikara. Zaldibarren ere,  
 esaterako, kontzertuak eta bes-  
 te hainbat ekintza prestatu izan  
 dituzte. Izaro Martinez email-  
 leak eskertu egin ditu jarduera  
 horiek, eta gaia kalera atera-  
 tzeari garrantzia eman dio.  
 “Minbizia duen ume bat zure  
 artean ikusten duzu, eta zelan  
 ez diozu, ba, lagunduko?”



da. Hala ere, gehienetan odola ateratzeagaz nahikoa izaten da. Makina bati konektatuta lau ordu ematen dituzu, eta kito. Gainera, emaile egitean, teknika erabakitzeko aukera daukazu, bat ala bestea, edo biak. Biak aukeratuz gero, hobeto, itxaroten dagoenak aukera gehiago edukiko duelako.

**Erabakia hartu, eta pauso bat aurrera. Zelan egin zenuten?**

**I.M.:** Basaurira edo Gurutzerara joan behar izaten da normalean, baina nik Galdakaon egin nuen, nire izeko bati egin ziotela enteratu nintzen eta. Konbentzituta ote zauden galdetzen dizute, eta trabatxo batzuk ipini ere bai; azken batean, ez dute gura jendeak izena eman eta gero atzera egitea, zain dagoenarentzat kolpe itzela delako. Munduko edozein pertsonari emateko konpromisoa hartzen duzu. Aparte, odol apur bat ateratzen dizute, sailkatzeko. Baten bategaz bateragarria izanez gero, baieztatzeko beste proba batzuk egiten dizkizute gero: analitika, errebisioa...

**M.G.:** Galdakaora odola ematera egindako bidaia aprobe txatzeko esan zidaten. Seguru ote nengoen ziurtatzea gura zuten. Hemendik Galdakaorako bidea izan zen luzeena.

**Egunen batean, norbaitegaz bateragarriak zaretela esaten badizute?**

**I.M.:** Poz itzela emango lidake. Behintzat aurrera jarraitzeko esperantza emango genioke; eurek prozesu gogorra dute transplantearen ostean, baina esperantza horrek asko balio du nire ustez.

**M.G.:** Pribilegio bat litzateke, badakizulako pertsona bati laguntzeko bidea izango zarela. Ez duzu zertan jakin nor edo nongoa den. Ordu batzuk galdu dituzu, huskeria bat, baina batek daki beste pertsona bati zenbat egun eman dizkiozun.

**Irakurleak emaile bihurtzera animatzen dituzue?**

**M.G.:** Horretarako etorri gara, ezta? Horixe da gure helburua.

**I.M.:** Senideak emaile bihurtu ezin diren jende piloa dago, eta horrek gure esku daude. Jen-dea animatuko nuke, bai.

**Nora jo daiteke informazio bila?**

**I.M.:** Hainbat webgune daude, eta Josep Carrerasen fundaziokoan informazio ugari dago. Gainera, familiekin landutako atari asko daude, euren esperientziak kontatzeko eta informazioa emateko direnak. **M.G.:** Anbulatorioan ere bideratuko zaituzte, di-da batean.

## “*Nebari poltsa ipini ziotenean, familiarentzat ikaragarria izan zen*”

Alain neba osatu ahal izateko, ezinbesteko bihurtu zen Marta Prieto durangarra; zelula amak emateko bateragarria izan zen, eta orduko akordu hunkigarri eta gogorra bizirik du



**> ERREPORTAJEA** M.O.

Arreba-nebak lotzen dituen haria sendoa bada, oraindik eta sendoagoa bihurtu zen Durangoko Marta Prieto eta bere neba Alainena, 2014an. Leuzemia diagnostikatu zioten Alaini, gazterik, bizi osoa aurretik zeukala. Bada, Martari esker lortu zuen aurrera egitea; zelulak emateko bateragarria zen. Prozesu horren kontakizuna egin du Martak, eta familiari suposatu zionaz ere akordatu da. Une gogorra izan zen, baina alaitasunez oroitzen dute. Herritarrek emaile bihurtzera animatu ditu, senide bateragarriak ez duten gaixoei lagundu ahal izateko.

Zelan gogoratzen duzu azterketak egiteko unea? Zelakoa izaten da prozesua?

Gaixoa nire neba izan zenez, emaile anonimo baten esperientziagaz alderatuta apur bat desberdina izan zen. Leuzemia diagnostikatu zioten, eta motagatik, transplantea behar zuen. Bateragarriak ginen jakiteko, probak egin zizkidaten, eta astebete inguru itxaron behar izan

genuen. Emaitza esatean, urduritasuna sentitu nuen, baina itzelezko poza. Ni medikua naiz, eta justu une hartan hematologia klasean nengoen. Negarrez, korrika irten nintzen klasetik; momentu ahaztezina izan zen.

“*Negarrez, korrika irten nintzen klasetik; une ahaztezina izan zen*”

“*Zelula amak poltsa batera sartzen dituzte, odol-ematea izango balitz lez*”

**Behin hori jakinda, zer etorri zen? Proba gehiago egin zizkizuten?**

Gero, bateragarritasun azterketa osatzeko, Donostiara joan nintzen; beste neska bi zeuden, emaile anonimo zirenak. Odol analisia, erradiografia eta elektroa egin zizkidaten, eta hainbat galdera ere bai. Kariño handiz hartu ninduten.

**Eta emateko ordua heltzen denean, zer pauso jarraitzen da? Zaila al da?**

Teknika bi daude, aferesia eta hezurmuinarena. Niri aferesia egin zidaten, gehiengoari egiten diotena. Txerto batzuk eman behar dituzu tripan, nerbio sistemako zelula amak erreproduzitzea estimulatzeko eta odolera irteteko. Makina baten bidez, poltsa batera sartzen dituzte, odol-ematea izango balitz lez. Erraza da. Kuriosoa iruditu zitzaidan, lehen zelulak irteten hasten direnean, txalo egiteko ohitura dutela! [barrez] Oso hunkigarria da.

**Ostean, minik edo eraginik sentitu al zenuen?**

Hirugarren edo laugarren egunean hezurretan mina sentitzen hasten zara, baina paracetamolagaz konpontzen da. Ematen duzun kopurua jasoko duenaren pisuaren arabera da. Gero, hilabetera edo bira, kontrol bat egiten dizute, eta urtebetera beste bat.

**Ezin imajinatu zuentzat zer suposatu zuen momentu horrek...**

Momentu alaia izan zen. Nebari poltsa ipini ziotenean, familiarentzat ikaragarria izan zen, itxaroten egon ginen unea zen. Nekatuta, baina pozik irten nintzen ospitaletik.

**Eta nebagaz, zelan? Prozesu horrek gehiago batu zintuzten?**

Batzen zaituen zerbait da, bai. Pozik zaudete, baina aldi berean badakizu egoera zelakoa den. Sentimendu kontrajarriak nahasten dira. Baina guk gauza alaitzat gogoratzen dugu.

**Zelan dago orain Alain? Zelako eboluzioa eduki du ordutik?**

Leuzemia ez zaio berragertu, eta hezurmuinak ondo funtzionatzen dio; transplantearen osteko arazoak ditu. Apur bat mugatzen du, baina bizitza nahiko normala egin ahal du, baita lan ere. Ondo joan zaiola esango nuke, eta pozik gaude.

Alainek zugan topatu zuen emailea, baina hainbat daude horren beharrezina dutenak. Emaile anonimoak behar dira.

Emaile izatea hausnartzen dabilen edozein pertsona animatu dadila. Ondo tratatuko dute, konfiantza emango diote, eta edozein zalantza argitzeko prest daude uneoro.



# Garbi galdategiaren isurketak iker ditzala eskatu diote Jaurlaritzari

Kaltea neurtu eta neurriak hartzeko eskatu dio udalak Ingurumen sailari



Duela aste batzuk Muntzaratz auzoa belztu zuen hautsa Garbi galdategitik etorri zela dio udalak eskatu zuen azterketak.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban  
Duela aste batzuk Muntzaratz auzoa hauts beltz batez kutsatu zuen isurketa Garbi galdategitik etorri zela, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari ikerketa abiatzeko eskatu diola jakinarazi zuen Abadiñoko Udalak, joan zen barikuan. “Onartezina eta osasunerako kaltegarria da hauts hori eguratsera askatzea”, zioen Jose Luis Navarro alkateak prentsa ohar hartan. Isurketen kaltea neurtu eta dagozkion neurriak hartu ditzala eskatu dio Abadiñoko Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Jose Luis Navarro alkateak adierazi duenez, Jaurlaritzako teknikariak asteon ziren enpresara ikuskaritza egitera joatekoak, baina eguaztenean

albiste hau idaztean Abadiñoko enpresara joan barik zeuden Ingurumen Saileko ordezkariak.

Duela aste batzuetako isurketaren ondoren, Abadiñoko

Abadiñoko Udalak Garbi galdategia ikuskaritza dezala eskatu dio Jaurlaritzako Ingurumen Sailari

Jose Luis Navarro:  
“Osasunerako kaltegarria eta onartezina da hauts hori eguratsera askatzea”

Udalak Azterlan enpresari eskatu zion hauts beltza nondik zetorren ikertu zezala, eta azterketa horren emaitzen arabera, Garbi da kutsaduraren eragilea.

Udal gobernuak joan zen barikuan komunikabideetara bidali duen oharrean arabera, Abadiñoko Udalak hainbat bider eskatu dio Garbi enpresari neurriak har ditzala, airea kutsatzen duten emisio horiek ekiditeko. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, enpresaren arduradunekin harremanean egon da aste honetan ere, eta azken gertakarien ostean hainbat neurri hartu dituztela adierazi diote galdategiko arduradunek. “Jaurlaritzak esango du hartu dituzten neurriak nahikoa diren ala ez”, dio alkateak.

# Aurrekontuetaarako proposamenak abendura arte aurkeztu daitezke

2017 hasieran herri batzarra deituko dute lehentasunak markatzeko

**OTXANDIO** J.D.  
2017ra begirako aurrekontuak osatzeko prozesua hasi du udalak. Elkarlan baten emaitza izan dadila gura dute eta, horregatik, proposamenak egiteko aukera ireki diete herritarrei. Ekarpenak abenduaren 4ra arte jasoko dituzte udaletxean. Gura duena helbide elektroniko bidez ere jarri daiteke hartu-emanetan: [alkatetza@otxandio.net](mailto:alkatetza@otxandio.net).

Proposamenak egiterakoan kontuan hartu beharreko puntuak gogoratu dituzte. Proposa-

mena zehatz deskribatzeko eskatu dute, eta ahal bada argazki batez laguntzeko. Informazio horregaz batera izen-abizenak eta telefonoa gehitu behar dira.

Abenduaren 4tik aurrera udalak proposamenak aztertu eta arloko ordenatuko ditu. Udal arlokoak ez direnak herri-gintzara (Herri-Olara, herriko elkarreketara...) bideratuko dituztela zehaztu dute.

Lanketa hori egin ostean, herri batzar bat deituko dute datorren urte hasieran. Bertan

herritarren eta udalaren bera- ren proposamenekin osatutako zirriborroa aurkeztuko dute, eta denen artean lehentasunak markatuko dituzte, ondoren behin betiko txostena osatzeko.

Proposamenak udaletxera eramane daitezke edo e-mail bidez bidali: [alkatetza@otxandio.net](mailto:alkatetza@otxandio.net)

# Lauaxetako ikasketa proiektuak denen eskura

Lauaxetan bertan egindako 85 proiektu hezkuntza komunitatearen eskura jarri dituzte

**ZORNOTZA** J.Derteano  
Lauaxeta ikastolak bere ikasketa proiektu propioak euskal hezkuntza komunitatearen eskura jarri ditu. 85 proiektu dira guztira, Lauaxetan bertan egindakoak eta DBHko ikasleen konpetentzien garapenera bideratutakoak. [www.ikasmaterialak.com](http://www.ikasmaterialak.com) webgunean jaso daiteke informazio gehiago.

Lauaxeta 4.0 da ekimen honen izenburua, eta UNESCOren txostenaren ildotik eta Eusko Jaurlaritzaren EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza) proiektuaren barnean, “euskal hezkuntza sistemarentzat onuragarri litekeen aportazioa egitea” izan dute helburu ikastolatik jakinarazi dutenez.

Joan zen asteko eguenean, Euskalit Kudeaketa Aurreratu-ko Europar Astea, hezkuntza berrikuntzaren arloan praktika

on gisa aurkeztu ondoren, martitzen honetan Lauaxeta ikastolan bertan egin zuen proiektua-

Martitzenean aurkeztu zuten proiektua Unesco etxeko zein hezkuntza arloko ordezkariekin

“Euskal hezkuntza sistemarentzat onuragarri litekeen aportazioa egitea” izan dute helburu

ren aurkezpen ofiziala. Unesco etxearen ordezkariak eta hezkuntza arloko hainbat eragile eta agente batu zituen ekitaldiak.



Martitzenean Lauaxetan egindako aurkezpen ekitaldia.

# Zaharren zaintzaileek protesta egin dute Igurkon

ELA sindikatuak deituta, greban daude beharginak

**ZORNOTZA** M.O.  
Bizkaiko zaharren egoitzetako hainbat behargin greban daude, ELA sindikatuak deituta. Lan baldintzak hobetzeko borrokan dabilta, euren lanak zaharren eta familiengan eragin ahal duela kontuan izanda. Atzo protesta egin zuten Zornotzan, Igurko egoitzan. Izan ere, Aldundiko ordezkariak bertaratu ziren, jardunaldi batzuen harira. “Aldundiko arduradunei “langileez ahaztu” egiten direla

egotzi die ELAk. Patronalek negoziatzeko “borondaterik ez” dute sindikatuaren ustez.




Beharginak, atzo protestan.





Urrats honekin Amankomunazgoak kontenedore marroia eskualdeko zortzi herritara zabaldu du.



Lur zatia dutenek konpostagailua jaso dezakete.

## Edukiontzi marroien eta konpostagailuen aldeko apustua egingo dute Garain, Izurtzan eta Mañarian

Abadiñoko, Atxondoko, Elorrioko eta Zaldibarko herritarrek ere ekimenagaz bat egin dezaketela azaldu du Amankomunazgoak

### > MATERIA ORGANIKOA

Europatik gaikako bilketaren inguruko helburu batzuk ezarri dira eta, horiek betetzeko ezinbestekoa da, gutxienez, etxebizitzetan eta enpresetan sortzen den materia organikoaren erdia bereizita jasotzea. Ondorioz, 2020rako birziklapen tasa %50 izan beharko litzaiteke. Helburu hori lortzeko gakoetako bat errefusa jaistea da. Une honetan Durangaldeko birziklapen tasa %24,97 da. Hortaz, %75,03 errefusa da. Birziklatzen den horretatik %1 baino ez da materia organikoa.

“Ingurumena hobetzeko eta gure ondorengoei mundu hobea uzteko gaitasun beharrek erroka baten aurrean gaude”,

**Materia dohainik jasotzeko izena eman beharra dago: 946232522 eta 'organikoa.mdurango@bizkaia.org'**

azaldu du Ismene Mandaluniz Ingurumen Garapeneko teknikariak. Amankomunazgoak aurrean duena ez da erroka

makala. Duela bi urte erakunde honek materia organikoa biltzeko proiektua jarri zuen martxan, udalekin elkarlanean. Abadiñon, Atxondon, Elorrian, Iurretan eta Zaldibarren gaikako bilketa martxan dute dagoeneko. Herriguneetan, edukiontzi marroien bidez, materia organikoa biltzen dute. Landa eremuetan, berriz, konpostagailuak jarri dituzte.

### 1.679 familia parte hartzen

Materia organikoa biltzeko egitasmoa martxan dagoen herrietan 1.679 familiek bat egin dute

ekimenagaz. Herri horietako biztanleriaren %19,84 suposatzen du horrek. Beraz, pausoak ematen ari diren arren, oraindik ere sentsibilizazio eta kontzientziazio lan handia dago egiteko.

2014ko otsailean proba pilotua jarri zuten martxan Matienan (Abadiño) eta Iurretan. Lehenengo bilketa hilean 620 kilo materia organiko batu zuten. Zifra hori gorantza doa etengabe. 2016ko urtarrilean bilketa hori Iurretan eta Abadiño osora hedatzeagaz batera, Atxondo, Elorrio eta Zaldibar

ere gehitu ziren proiektura. Horrela, 2016ko irailean 6.760 kilo jaso dituzte.

### Hazten doan ekimena

Orain ekimena beste hiru herritara zabaltzeko asmoa dute. Garai, Izurtza eta Mañaria izango dira ekimenagaz bat egingo duten udalerriak. Kanpainan parte hartzeko eta materiala dohainik jasotzeko, izena eman beharra dago. Horretarako, bi aukera daude. Telefonoz deitzea 946 232 522 zenbakira, edo e-posta bidaltzea [organikoa.mdurango@bizkaia.org](mailto:organikoa.mdurango@bizkaia.org) helbidera.



## FACT! programa abian da Durangaldeko familientzat

Elikadura ohiturak hobetzen lagunduko die

### > ELIKADURA

Elikaduraren gaiaren gainean sentsibilizatuta, Global Action Plan (GAP) erakundeak FACT! programa jarri du martxan, Durangaldean. Programa horren helburua da familiei elikatze-ohiturak hobetzen laguntzea, ingurumenean, klima-aldaketan, elikadura-hondakinen produkzioan eta osasunean diren eraginak

murritzte aldera. FAOren arabera, munduan gizakientzat ekoiztutako elikagaien ia herena hondatu edo galdu egiten da. Europako Batzordearen ustez, Europar galera horren balio-kidea da urtean 170 milioi tona CO<sub>2</sub> isurtzea edo ekoiztutako elikagaien %30 - %50 artean hondakin bilakatzea. Etxeak alferrik galdutakoaren %42ren erantzule dira; elikagaien in-

dustriak %39 botatzen du. Datu horiei guztiei beste hau gehitu behar diegu: elikagaiak ekoizten diren lekutik kontsumituko diren lekuraino behar den garraioak sortzen dituen negutegi efektuko gasen isurketa.

Bestalde, kontuan hartzen baditugu elikadurarekin loturiko osasun arazo nagusietako bi (gizentasuna eta 2 motako diabetesa), kalkulatu da horrekin loturiko urteko osasun gastua ia 300.000 milioi eurokoa dela Europar Batasunean.

Informazioa laster egongo da eskuragarri Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoaren web orrialdean: [www.mdurango.org](http://www.mdurango.org)



# “Badakigu jende gehiago dagoela kalean lo egiten”

Kalean lo egiten duten pertsonen kontaketa 19 lagunek parte hartu zuten



Ezkeretik hasita, Areitio, Estefanía eta Arginzoniz.

**DURANGALDEA** M. Onaandia Kalean lo egiten dutenen erreallitateaz gutxi jakiten da. Norzuk diren, zein egoeratan dauden, herrian zenbat dauden... Jaurlaritzak bultzatuta, kontaketa bat burutu zen orain hiru aste Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako 24 udalerritan, eta Durango eta Iurreta ere kontuan hartu zituzten; bina lagun topatu zituzten. Amankomunagoak lehenengoz sustatu du, eta, guztira, 19 boluntariok parte hartu zuten kontaketa. Tartean, Caritas, JAED eta Iurreta txirrindulari elkarteak kideak.

Caritaseko hamar bat lagun ibili ziren boluntario, eta Alberto Estefanía zen eurretako bat. “Ez genuen jende asko topatu, baina badakigu jende gehiago dagoela kalean lo egiten. Adi-

bidez, elkarriketatu genuen baten alboan beste batek egiten du lo, baina egun hartan Bilbon zegoen”. Bere ustez, herri batean denbora asko daraman jendea gaitzagoa dela topatzen gehitu behar zaio horri: “Leku babestuagoak aukeratzen dituzte: hondamen egoeran dauden eraikinak, bertan behera utzitako fabrikak, agerian ez dauden txabolak...”. Etxebakoentzako Etxepel zentroko arduraduna da Estefanía, eta kontaketa baliabide gehiago behar direla berresten duela dio.

Maitane Arginzonizek Gizarte Lana ikasi, eta Amankomunazgoan egin zuen lan. Kontaketa parte hartzeko gonbiteari baietz esan zion. “22:00etan bat ginen, Amankomunazgoko egoitzan, eta taldeka banatu gi-

nen. Niri San Fausto eta hilerri ingurua tokatu zitzaizkidan, eta pare bat ordutan bueltara ibili ginen; ez genuen inor topatu”.

Juan Luis Areitio Iurreta txirrindulari elkartekoa da, eta herriko ibilbidean egon zen. “Aur bat arduratuta joan nintzen, baina lagun taldeagaz ondo moldatu ginen. Kalean lo egiten duen batek bere bizimodua kontatu zigun, eta harrituta geratu nintzen”. Zenbait hedabidetan Iurretak portzentajerik altuena duela agertu da, baina Durango alboan egonda, datua ez dela erreala azpimarratu du Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek.

Lopez koordinazio lanetan ibili zen. Balorazio ona egin, eta hurrengo aldian herri guztietara hedatzeko asmoa agertu du.

## Sorturen birfundazio prozesuan parte hartzeko deia egin dute

Zuzendaritza eta ponentzia bozkatu behar dituzte

**DURANGALDEA** M.O. Ezker abertzalearen baitan *Abian* izeneko eztabaida fa-sea burutu eta gero, Sortu alderdia birfundazio prozesuan

Parte hartu eta bozkatzeko izena eman behar da, herrietako batzarretan edota ‘sortu.eus’ atarian

murgilduta dabil. Hurrengo urteetarako oinarriak, ildoak eta antolakuntza zehaztea da euren asmoa. Zuzendaritza talde bakarria aurkeztu da prozesu

zabal horretarako –Pello Otxandiano otxandiarra da hautagai bat–, eta talde horren ponentzia herririk herri azaltzen ari dira; bozketa bidez erabakiko da. Durangon, esaterako, joan zen zapatuan egin zuten batzarra, eta eztabaidarako bigarren buelta martitzenean egingo dute, 18:30ean, Ibaizabal ikastolan. Otxandion gaur izango da, 19:00etan; Abadiñon eta Zaldibarren bihar, 10:00etan; Elorrioren martitzenean, 19:00etan; eta Mañarian eta Izurtzan 25ean, 19:00etan.

Prozesuan parte hartu eta bozkatzeko, izena eman behar da, herrietako batzarretan edota *sortu.eus* atarian.



Durangoko Plateruenean egin zuten batzarra, joan zen zapatuan.



Iazko lehiaketaren sari banaketan irabazleekin ateratako argazkia.

## Ipuin laburrak postontzietan eta Twitter bidez jasoko dira

**DURANGALDEA** J.Guenetxea Euskararen Egunaren harira, Berbaro Taldeak (Berbaro euskara elkarte, Plateruena kafe antzokia eta ANBOTO) antolatutako #365ipuin lehiaketa nobedadez beteta dator. Antolatzaileek azaldu dutenez, “140 letratan mundu bat azaldu daiteke. Aurten ere, badago labur gauza ederrak kontatzeko aukera. Euskarazko ipuin laburrez beteko ditugu bazterrak”.

Hirugarren edizio honetan, ipuin laburrak jasotzeko bideak aldatu egin dituzte. Twitter

bidez #365ipuin traola erabiltuta ipuinak txiokatu daitezke. Berrikuntza moduan, aurten Durangaldeko leku estrategi-

Sari ematea abenduaren 14an egingo dute, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian

koetan postontziak jarri dituzte paperean idatzitako ipuinak jaso ahal izateko. *Berbaro.eus*

webgunean kontsultatu daiteke postontzien kokapenaren zerranda osoa. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 2a izango dela azaldu dute ekimenaren antolatzaileek.

### Sari ugari

Lehiaketa honetan hiru sari banatu dituzte. Postontzi bidez jasotako ipuinen artean, 17 urtetik beherakoen artean irabazten duenak tableta eta liburu-sorta jasoko du. 18 urtetik gorakoak, berriz, 100 euro eta liburu-sorta. Twitter bidezko ipuin irabazleak ere 100 euro eta liburu-sorta eskuratuko ditu.

Sari ematea abenduaren 14an egingo dute, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.





Sektoreko profesionalak eta instituzioetako ordezkariak batu ziren jardunaldietan.

# Tokikomeko jardunaldietan tokiko hedabideen erronkez hausnartu dute

Datu kazetaritza, aplikazioak, hibridazioa... hainbat gai landu zituzten asteleheneko topaketetan

## GOIENA

Zein bide egin dute toki komunikabideek? Zeintzuk dira aurrean duten bidegurutzearen ezaugarriak? Zeintzuk aukerak eta mehatxuak? Bada, horren gaineko gogoeta egin zuten astelehenean, Arrasateko Garaia Berrikuntza Zentroan egindako Tokikom jardunaldietan (Anboto Tokikomeko kide da), helburu

bikoitzagaz, Tokikomeko zuzendari Alaitz Artolazabalek azaldu duen moduan: “Batetik, euskarazko toki komunikabideek egiten duten lanaren balioa nabarmentzea, eta, bestetik, etorkizunean ere nolabaiteko gakoan gainean hausnarketa bat egitea balio hori eskaintzen jarraitu ahal izateko”. Komunikabideen euskarria bera asko aldatu da

teknologiaren eraginez. Duela 25 urte papera zen nagusi, eta tokiko hedabideen oinarria. Hori oso azkar mugitu da teknologia berrien alorrera. Internet, edizio digitalak eta medioak webguneetan zentratzen zeudenean, mugikorrak etorri dira. Eta horrek goitik behera aldatu du dena. Alde batetik, hedabideak ulertzeko modua aldatu du, eta,

bestetik, hedabideak finantzatzeko eta kontsumitzeko.

Horren gaineko gogoeta egiteko, bertoko zein kanpoko hama lau adituk parte hartu zuten. Hauek izan ziren, besteak beste: Kike Amonarriz soziolinguista eta komunikatzailea, Jon Sarasua Huheziko irakaslea, Jorge Bernet Beleader-ko zuzendari komertziala, Eneko Bidegain

Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria, Oihana Blanco Innobasqueko ekonomia zirkularreko proiektu ardura-duna, Jorge Campanillas abokatua, Igor Etxeberria Bera-Berako kudeatzailea, Francesc Fabregas Associacio Catalana de Premsa Comarcal-eko presidentea, Ander Garcia Vicomtech-4ko ikerlaria, Xavier Jimenez Only Media Webeko zuzendaria, Joxemanuel Irigoien Ttipi-Ttapa Fundazioaren kudeatzailea, Ramon Salaberria kazetaritza digitaleko ikerlari eta irakaslea Nafarroako Unibertsitatean, Eli Vivas El Periodico de Catalunya-ko infografia taldearen datu-kazetaritzako sailaren koordinatzailea eta Guillermo Vilarroig web garapenean eta sarean marketinean espezializatutako Overalia agentziaren sortzailea.

Erakundeetako ordezkariak zabala ere batu zen Garaia Berrikuntza Gunean. Era berean, 150 entzule inguru ere batu ziren jardunaldietan, tokiko hedabideetako eta erakundeetako ordezkariak eta agintariak. Tokikomeko lehendakari Urko Aristik ireki zituen jardunaldiak: “Bost urte dira Tokikom sortu zela, eta gaurkoak dira lehenengo jardunaldiak. Gehiago ere izango dira, nola ez”, adierazi zuen. Berbaldi laburrean, erronkez aritu zen Aristi: “Badugu lana aurretik. Erronkak landu behar ditugu, eta gaurkoak horretarako balio du. Edukia, teknologia berriak eta diru iturriak landu behar ditugu”.



## GOIENA Ubane Madera

**Kike Amonarriz soziolinguista eta komunikatzaileak toki komunikabideek euskararen transmisioaren katean izan duten eraginaz berba egin zuen Tokikomen jardunaldietan.**

**Ze garrantzi dute toki komunikabideek euskararen transmisioaren katean?**

Herri-aldizkarien mugimendua 90eko hamarkadan sortu zen, euskara elkarteek bul-tzatuta, helburu nagusi hauekin: euskarazko irakurgaiak euskaldunak zeuden etxe guztietara heltzea, gertuko informazioa euskaraz eskaintzea,

## “Hizkuntza bat ezin liteke normalizatu, hedabideetan ez badu presentziarik”

euskara elkartearen eragina zabaltzea eta herri/eskualdeetako euskal komunitatea ahal-dundu eta trinkotzea. Tokiko hedabideak oso baliabide garrantzitsuak izan dira eta dira euskararen transmisioari begira, gertuko komunitatean euskaraz bizi ahal izateko esparruak sortu edo irabazi dituztelako, eta tokiko euskarak prestigiatu. Bestalde, erreferente eta profesional euskaldunak sortu dituzte, euskaraz egiten den guztiari ikusgarritasuna eta garrantzia eman diote eta bozgorailu ikaragarria izan dira euskal kulturarentzat. Beren funtzio eta helburuen garrantzia begi-bistakoa da. Baina, une honetan gure buruari egin behar diogun galdera, agian, beste hau da: zein neurritan ari dira betetzen aipatu ditugun helburuak eta funtzioak? Egia da

etxe askotara iristen direla eta euskarari eta euskalgintzari egiten dioten ekarpena berebizikoa dela, baina iruditzen zait, batzuetatik bestetara alde handiak egon arren, oro har, ez direla iristen funtzio horiek guztiz betetzera: geografikoki hartzen duten eremua mugatua da, dauden lekuetan askotan ez dira heltzen euskaldunen gehiengoarengana... Bidea egin dugu, baina, lan handia dugu egiteke aurretik.

**Toki komunikabideek zelan lagundu dute transmisio horretan?**

Transmisioa gauzatu dadin, ez da nahikoa etxean jasotzea; are gutxiago, transmisioa, batez ere, familietatik kanpo egiten den gurea bezalako hizkuntza bati dagokionez. Alde horretatik, tokiko komunika-

bideek hainbat esparrutako terminologia eta esapideak gizarteratzen lagundu dute, euskalkiak eta herrietako ondare linguistikoa transmititzen lagundu dute eta hizkera lokalen eta estandarren arteko dikotomiari irtenbide praktikoa eman diote.

**Hizkuntza hegemonikoen ondoan bertako hizkuntzak sustatu eta babesteko, ze punturaino dira beharrezko?**

Gaur egun, hizkuntza bat ezin liteke normalizatu, hedabideetan ez badu presentziarik. Datozen hamarkadetan ez badugu lortzen onarpen eta eragin sozial handia izango duen euskarazko hedabide-sare zabala osatzea, euskararen normalizazio prozesuak nozitu egingo du gabezia hori. Gertutasuna lantzea da euskarazko komunikabideon indargune

nagusietako bat; zer esanik ez, tokikoena. Eta horrek aukera ezin hobeak eskaintzen ditu, indar handiagoa duten hedabideak iritsi ezin daitezkeen leku eta esparruetara iristeko eta beste inon aurkitu ezin den informazioa emateko. Bestalde, eta etorkizunera begira, iruditzen zait hedabide mota guztien arteko harremanak eta sinergiak gehiago landu beharko liratekeela, eta hedabideen esparruan ditugun hutsune nabarmenenak osatu. Tokiko komunikabideek gertuko informazioa lantzen jarraitu behar dute eta nazio mailako hedabideekiko zubia eraikitzen.

**Uztargarriak dira toki komunikabideak nazio mailakoe-kin hizkuntzarekiko eraginkortasun maila handitzeko?**

Zalantzarik gabe esango dut baietz. Komunikabide bakoitzaren ezaugarriak eta nortasuna errespetatuz, elkarlana eta harreman-sareak zabaltzea beharko lirateke.



**BERRIZ** M.Zuazubiskar

Asteon, STEE-EILAS, LAB, ESK, UGT eta ELA sindikatuek atxikimendua eman diote, Berrizko eskolan, eskola jantokietan bertako produktuak jatearen aldeko plataformari, Berton Bertokoari.

Martxoaz geroztik, Berton Bertokoa dinamikako kideak lanean dabiltza ikasleen plateretako jakiak bertakoak, sasoikoak eta eskolako jantokian prestatutakoak izan daitezten.

Orduraz geroztik, Durangaldeko hainbat kidek osatutako dinamika indarra hartu du, eta sindikatuaren atxikimendua “bultzada handia” izan dela aitortu du Aitor Zumelaga Berton Bertokoa dinamikako kideak. “Guretzat aste honetakoa oso garrantzitsua da, ikusten baitugu langileek ere zilegiztatzen dutela gure proposamena” gaineratu du Zumelagak.

Bestalde, sindikatuetako ordezkari guztiek adierazi dute ezinbestekoa dela bertako eta sasoiko produktuak eskolako jantokietan erabiltzea. UGTko Estibaliz Pujanak adierazi du “oso garrantzitsua” dela bertan ekoiztutakoa izatea eta denboraldiko produktua izatea. ELA sindikatuko Arrate Elkorok, berriz, osasunagaz eta elikadu-

## Sindikatuak atxikimendua eman diote Berton Bertokoari

Bertako produktuaren alde egin dute STEE-EILAS, LAB, ESK, UGT eta ELAk



Asteon, Berrizko eskolan ateratako talde argazkia.

ragaz egiten diren negozioak ezin direla egin gaineratu du.

Iolanda Formoso eta Zuriñe Andres LAB sindikatuko ordezkariak, aldiz, eredu aldatzea derrigorrezkotzat jo dute. Horretarako, LABek hiru zutabe hauek —elkadura, autogestioa, bertako produktuak sartzeko,

eta langile eta hezitzaileak publikoak izatea— aldatzea garrantzitsutzat jo du.

### Aurrera begira

Berton Bertokoa dinamikako kideek talde txoetan batuta lanean jarraituko dutela adierazi dute, aurrerantzean ere Durangal-

deko eskola gehiago dinamika honetara batu daitezten.

Horrez gain, Aitor Zumelagak eskola jantokietako eredu aldatu arte lanean jarraituko dutela adierazi du: “Eusko Jaurlaritzara joan ginen, eta hau lortu arte behar dugun guztietan joango gara”.

## Hirugarren adinekoen Aste Kulturala

**ZALDIBAR** I.E.

San Martin elkartearen eskutik, hirugarren adinekoen Aste Kulturala egingo dute, astelehenetik aurrera. Besteak beste, *Claves para una buena comunicación* berbaldia entzuteko edo Donibane Lohitzunera (Lapurdi) bisitaldia egiteko aukera edukiko dute, eta meza, bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte azaroaren 30ean.

## Tokiko agendaren foroan ekarpenak egiteko aukera

**IZURTZA** J.D.

Tokiko Agenda XXI foroaren batzarra egingo dute eguaztenean, 19:15ean, udaletxe-ko udalbatzar aretoan. Iazko plangintza zein punturaino gauzatu den aztertuko dute, eta datorren urtera begirako proposamenak batuko dituzte. Ekarpenean bat duten herritarrei bertaratzeko deia egin die. Ekarpeneak aurrekontuetan aintzat hartzen saiatuko dira.

## Eixu artisau elkarteak azoka antolatu du

Elorrioko eta inguruetako hamar bat lagun eskutik, Eixu artisau elkarteak jaio berri da

**ELORRIO** M.O.

Eixu izeneko artisau elkarteak sortu da Elorrioren, herriko eta inguruetako hamar bat lagun eskutik. Sorkuntzan dabilzan leku bat egitea da euren helburua, eta dagoeneko antolatu dute lehen ekintza, bihar egingo den azoka.

11:00etan hasi eta 19:00ak arte, hamar postu ipiniko dituzte plazan —euria eginez gero

elizpean—. Lau postu izango dira elkartekoak, eta gainerakoak gonbidatutakoak. Salgai egongo diren produktuak, askotarikoak: panpinak, bitxiak, kamisetak, poltsak, umeentzako arropa...

Bihar plazara aterako dira, baina etorriko dira ideia berriak. Gainera, elkarteak Euskal Herriko artisau guztiei zabaldua dagoela esan dute.

## Elkartasun Azokarako materiala batuko dute

Azaroaren 21etik abenduaren 2ra egingo da bilketa

**IURRETA** Aitziber Basauri

Abenduan egingo duten Elkartasun Azokan salgai jartzeko materiala batzeko deialdia egin dute udalak eta Anderebide emakumeen elkarteak. Jostailuak, liburuak, bitxiak, dekorazio elementuak, musika CDak, filmak... batu gura dituzte, azaroaren 21etik abenduaren 2ra bitartean. Herriarreen ekarpenak Ibarretxe kultur etxean batuko dituzte, aste ba-

rruan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Abenduaren 12tik 16ra egingo dute Azoka, Ibarretxe kultur etxean — 09:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara—, eta bost euroko erosketa bakoitzaren trukean otzara baten zozketan parte hartzeko aukera emango da. Abenduaren 24an egingo dute zozketa. Batutako dirua gobernuz kanpoko erakunde baten esku utziko dute.

## Baserriko lanabesen liburua aurkeztuko dute

**MALLABIA** A.E.

*Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek: Iragandako bizimodu baten lekuko* liburua aurkeztuko dute eguenean, 19:00etan, Kontzejuzarren. Pello Mugarzak, Jesus Mari Uribelarreak eta Justo Azagirrek idatzitako liburu honek baserrian erabili izan dituzten lanabesak ditu ardatz. Herriko baserrietan erabiltzen dituzten tresnen azterketa egin dute.

**Aitor Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

**IMQ** **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

## Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA



# Kartzela zigorra jaso dezaketen behargin bi babestu dituzte

Etxebarriko TMA enpresako burua mañariarra da, eta protesta egin dute



LABek deituta, plazan egin zuten elkarretaratzea martitzenean.

**MAÑARIA** Markel Onaindia  
Etxebarriko TMA enpresa 2013an itxi zen, eta horren aurretik zortzi hilabeteko greba burutu zuten beharginek. Gatazka haren ondorioz, enpresak hainbat langile salatu zituen, eta orain eurentako biren aurka-ko epaiketa egingo da; kartzela zigorra eskatzen dute fiskalak eta enpresaburuak. Mañariarra da enpresaburua, eta, horregatik, Mañarian bertan salatu dute egoera. Martitzen eguerdian elkarretaratzea egin zuten LAB sindikatuak deituta.

LAB sindikatuak azaldu du azaroaren 29an hasiko dela epaiketa, Bilbon. Enpresariak 5 urte

Enpresariak 5 urte eta 6 hileko kartzelaldia eskatu du eurentzat, eta fiskalak 2 urte eta 3 hilekoa

eta 6 hileko kartzelaldia eskatu du eurentzat, eta fiskalak 2 urte eta 3 hilekoa. “Lanpostuak eta soldatak lapurtu ondoren, en-

presariak kartzelara bidali gura ditu bi langileak”, kritikatu du LABek. Gainera, fiskala enpresariaren alde ipini izana ere ez du ondo ikusi sindikatuak.

Durango eta Gernikako epaitegietan gaia artxibatu ostean, Bilbotik dator epaiketa.

**Mozioa, aurrera**  
Mañariko osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten, eta EH Bilduren botoekin eta EAJ abstentituta egin zuen aurrera. Langileak ezin izan ziren bertaratu, urruntze agindua dutelako.

## Ugartetxea eta Payagaz bertso afaria, bihar

**GARAI** M.O.

Trumoitte kultur elkarteak eta udalak antolatuta, bertso afaria egingo dute Garain, bihar, hilak 19. Beñat Ugartetxea mallabitarra eta Fredi Paya algortarra gonbidatu dituzte bertara, eta 21:30ean hasiko den afariaren ostean kantatuko dituzte bertsoak. Otea-Loran elkartearen burutuko da bertso jaialdia.

Antolatzaileek azaldu duteenez, 26 lagun bueltan batuko dira bertsoez gozatzeko.

## OHZn zenbat ordaindu jakiteko argibide orria

**ATXONDO** J.D.

Atxondoko azken udalbatzarrean Ondasun Higiezin Zergaren 2017ko tasak onartu zituzten: Hiri ondasunen tasa orokorra %0,12koa izango da, eta landa-ondasunena %0,11koa. Portzentaje horiek katastro balioei aplikatuko dizkiete, hau da, Aldundiak jabeen jakinarazitako balioei. 2017an ordaindu beharrekoa jakiteko argibide orri bat argitaratu du udalak bere webgunean: [www.atxondo.net](http://www.atxondo.net).

### SEI HANKAKO MAHAIA

**FRAN GARATE**  
PP



### OHZren aurka

Iazko abenduan PP alderdiak irabazi zituen hauteskunde orokorrak. Gerora, ekaineko hauteskundeak ere irabazi zituen, eta emaitzak hobetu zituen alderdi bakarra izan zen. Emaitza demokratikoak izan ziren, eta ez zerutik eroritakoak. Denak du bere zergatia. Espainiar askok ondo baloratu zituzten hartutako erabaki ekonomikoak, beharrezkoak eta herritarrentzat onak izan zirelako. PP alderdiak epe ertain eta luzera begira gobernatu zuelako 2011tik 2015era. Erabaki zailak hartu behar baziren, hartu egingo zirela pentsatu zen, azken batean horrek ekartzen baitie onura pertsonari, eta horretarako gobernatu zuen.

Urriaren Rajoy presidente izendatu zuten, egindako lanaren ondorioz.

Eztarria guztiz hartuta eta ia lan egiteko modurik ez zuela, Esther-ek galdetu zidan ea zein zen gure jarrera durangarren mesederako. Erraz jarri zidan kontua. Harrituta eta arduratuta bizi ditugu egun hauek, Durango gobernatzen dutenek (EAJ eta PSE) egiten dutena ikusita. Pertsonen onurari begiratu gabe oparitu diguten urte amaieran OHZk ez digu lorik egiten uzten, eta ez dakigu irribarre egiteko moduan egongo garen lo ez gaudela. PPK OHZn aldatu den guztiaren aurka bozkatu du. Ez diogu zentzurik hartzen, gaizki dagoelako. Gaizki, bai. Benetan gaizki. Konpontzeko moduan egongo ote dira?

Ekainean gauza bat bozkatu zuten. PP izan zen aurka egon zen bakarra. Eta azaroan adabakia jarri nahi izan diote, baina ez dute lortu. PP berriz ere aurka. Izan ditzagun kontuan durangarrak eta Durangorentzat onena dena.

*\*Erredakzioan itzulia*

### DURANGALDEA ASTEON

#### Mintzodromoan elkartuko dira domekan

**MALLABIA** > Azaroaren 20an, 13:00etan, Kontzejuzarren antolatuko duten Mintzodromoan elkartuko dira ekimenean parte hartzeko izena eman dutenak. Mahai bueltan elkartu eta euskaraz berba egitea da Udalak, Orraitio euskara elkarteak eta Kaltxango AEK euskaltegiak antolatu duten ekimenaren proposamena.

#### Eguaztenero, ipuin kontalaritza saioak

**ABADIÑO** > Eguaztenero, 18:00etan, bost eta zortzi urte arteko umeei zuzendutako ipuin kontalari saioak egiten dituzte Zelaia Udal Mediatekan. Urtarrilaren 25era arteko programazioa plazaratu du udalak, eta bakoitzean ipuin kontalari baten ahotik, denetariko istorioak entzungai izango dituzte abadiñarrek.

#### 25. Ipada Amaia dendan banatu dute

**DURANGO** > Amaia dendan banatutako 582.273 zenbakidun erosleak jaso du *Salerosketak be euskaraz* kanpainako 25. IPada, zozketa antolatzen duen ITG taldeak jakitera eman duenez. Durangoko dendetan euskararen erabilera sustatzeko helburuagaz abiatutako kanpaina da *Salerosketak be euskeraz*.

### Eskerrik asko!

Eskerrik asko. Eskerrik asko danori. Bariku arratsaldean hori baino ez zan urtetan nire ahotik, eta orain idatziz esan gura dot. Eskerrak Mancisidorren 150. ospakizuna zabaldu eta horren berri emon daben komunikabide guztiei, eta zelan ez, eskerrak hainbat eta hainbat bezero eta laguni. Egun berezi hau gugaz ospatzera etorri zarenei, baita hona hurbildu ez arren urte hauetan guztietan gure ondoan egon zarienez guztiei ere. Zuei esker gagoz gaur hemen hainbeste urte pasatu eta gero, eta ez eban zentzurik izango zuek barik ospakizun hau egitea. Urtearen hasieran erabaki genduan 150. urteurrena ezin genduala pasatzen laga ezer egin barik, eta helburu honegaz lanean hasi ginan artxiobotan, argazkiak zein antzinako

dokumentuak batzen. Lan honen guztiaren ondorioz, belaunaldiz belaunaldi hainbat bidar entzundako istorioak dokumentuz jantzi eta bariku arratsaldean erakusketa bat prestatzeko gai izan gara.

Erakusketa honetan ikusi da 1866. urtean Jose Mancisidor eta Juana Urigueneen ezkontzagaz hasi zala egun Mancisidor bitxi-denda danaren historia. Hasiera baten, erloju-denda zan batez be, eta ezkontza horretatik gaur egunera 5 belaunaldi pasatu dira, bakoitza bere historiagaz, eta historia horien danen ondorioz gagoz gu hemen orain, garan bitxi-dendan bilakatuta. Ez da erreza hainbeste merkataritza-gune eta interneten salmenten artean gure moduko denda txikiek bizirik eustea, eta hau dana zuek barik ezinezkoa litzateke. Beraz, barriro ere esan gura nuke, eskerrik asko danori.

Maite Mancisidor (Durango)

### IRITZIA

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

#### DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.





Lore Salaberria Agirre (1990) eta Nerea Lersundi Ugaldea (1987) | Elorrioko Bilgune Feministako kideak | Elorrio

# “Berdintasun faltsuaren aroan bizi gara; eta bide luzea dugu egiteko oraindik”

Atzo egin zuen jendaurreko aurkezpena herriko emakume guztientzat zabalik dagoen Elorrioko Bilgune Feministak

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Emakumearen ahalduztea “prozesu natural sakon bat” da, “kolektiboan eginez gero aberasgarriagoa izan daitekeena”. Horretan lan egingo du Elorrioko Bilgune Feministak: “Naturaltasunez uko egin diogu espazio askori, eta hori ez da modu natural batean, kasualitatez eman”. Erasoak salatu eta kalera irtetera deitu dute, baina, egunerokoa ere asko dagoela egiteko gogoratu ere bai. Durangaldean elkarlana sustatuko dute.

Bilgune Feminista sortu duzue Elorrion. Txoko Feministatik emandako pauso bat da? Nerea Lersundi: Duela bost bat urte sortutako Txoko Feministatik irten den transformazio bat dela esango genuke. Lehenengoak gara, baina, saretu egin gara. Euskal Herriko Bilgune Feministak duen indarrak baliatu gura izan dugu; izan ere, beti izan ditugu erreferente eta beti egon gara hartu-emanen.

**Zeintzuk dira helburuak eta erronkak?**

Lore Salaberria: Herrira begira, Txoko Feministaren helburu berberak. Herrian emakumeentzat espazio bat egotea gura dugu, eta indartsuagoak izatea. Elorrion baden errealtate matxistaren adierazpen guztiak azalerazi gura ditugu, eta herriko emakumeak ahaldundu. Bilgune Feministak 15. urteurrena beteko duen honetan batu gara horra, eta beraien erronkak geure egingo ditugu. Datorren urtean topaleku desberdinak izango dituzten hainbat ospakizun eta lanketa egingo dira.

N.L.: Aldaketa politiko eta soziala posible izatea litzateke Bilgune Feministaren erronka nagusia, beti ere, mugimendu feminista batek bultzatuta.

**Ikuspuntu feminista zabaltzeko premia ikusi izan duzue?**

L.S.: Txoko Feminista sortu genuenean premia bat ikusi genuen, eta oraindik ikusten dugu. Urteotan egoera aldatu da, pausoak eman dira. Badaude berdintasunaren aldeko politikak, planak... baina berdin-



Elorri Bilgune Feministako kideak batzartuta.

tasun faltsuaren aroan bizi gara; eta bide luzea dugu egiteko oraindik. Horregatik uste dugu indar gehiago jarri behar dela mugimendufeministan.

L.S.: Klean presentzia minimo bat lortu dugu. Horregaz ez dut esan gura aurreko talde fe-

ministek lanik egin ez dutenik. Baina, feminismoa kaleratzeko gai izan garela uste dut. Pre-  
miak, baina, lehengoak dira.

**Berdintasunari dagokionez, bide luzea dago egiteko.**

L.S.: Bai. Berdintasunean bi-

go ondorioez baino. Eskola eremua garrantzitsua da, eta indarrak jarri behar dira horretan. Hezkuntza sistema osoa jarri behar dugu bide horretan, baina, etxean, klean, eskolaz kanpoko ekintzetan egin beharreko lanagaz batera elkarren osagarri izan behar dira.

**Arlo horretan, zein mailatan dago gizartea?**

N.L.: Aipatu dugun berdintasun faltsu horregaz dago guztia lotuta. Gure ustez, egiteko dagoen lan hori guztia egin dagoen ustea zabaldu da. Hala ere, urte biko umeek generoagaz lotutako estereotipo guztiak errepikatzen dituzte ikusenezake. Beste adibide bat gabonetako jostailuen kanpainak dira. Izugarria da, eta oso barneratuta dugu.

L.S.: Jendartean bada halako isiltasun itun bat. Konplize asko dago gai honetan. Askok ez dute jarerrarik hartzen; jarra neutroak daude, guretzat konplizeak direnak. Ikusgarria da eremu makroan emandako indarkeria —dela fisikoa, dela sexuala— baina, eremu mikroan —etxean edo familian, lagun edo bikotekideagaz ditugun harremanetan— ematen den indarkeria ez dakigu identifikatzen, eta horrek ere konplize bihurtzen gaitu. Askok dugu hausnartzeko, entzuteko, oraindik.

**Eraso sexisten aurrean herri-tarren erantzuna gero eta indartsuagoa dela dirudi.**

N.L.: Badirudi baietz, baina, neutraltasun handia dago. Herri-tar denak animatu gura ditugu eraso guztiak salatu eta kalera irtetera. Gaitz bat da.

**Beldurra ere eraso da?**

L.S.: Indarkeria estrukturala da. Egia da beldurra izateko hezi gaituztela, eta erreflexu naturala ere bada. Kontua da beldur horri aurre egiteko tresnarik ez digutela eskaini.

N.L.: Emakumearen askatasuna mugatzeko tresna izan da beldurra. Horri aurre egiteko hor dugu autodefentsa feminista. Are gehiago, horretara ez heltzeko tresna ere bada.

“*Badago halako isiltasun itun bat. Jarrera neutroak daude, guretzat konplize direnak*”

zi garen sentsazioa dugu. Hala ere, badirudi jendeak justiziaren esku uzten duela gaia, eta mugimendu feministak beti aldarrikatu izan du honetan aurrera egiteko modua aurrea hartzea dela, eta horretarako hezkuntza da bidea.

**Hezkidetzaz ari gara?**

L.S.: Bai. Aurrea hartzeaz ari garenean, eraso sexista gertatu ez dadin jendartean eman beharreko transformazioaz ari gara, eraso gertatu ondoren-





Txelu Angoitia

## Euskal kulturaren alde “inurri lana” egin dutenak omenduko ditu Durangoko Azokak

Justo Alberdi iurretarra eta Jose Ramon Zengotitabengoa zaldibartarra daude omenduen zerrendan

### ► AZOKA Itsaso Esteban

1992. urtetik, euskal kulturaren aldeko lanean jardun direnak omentzeko, Argizaiola saria ematen du Gerediaga Elkartek Durangoko Azokan. Aurten, euskal kulturaren alde “orduak eta orduak eman dituzten” langile nekaezinak omenduko dituzte. Ehunka lagun lan eskertzeko, sei lagunek jasoko dute Argizaiola, eta tartean Durangaldeko bi lagun daude: Justo Alberdi iurretarra eta AEBetan bizi den Jose Ramon

Zengotitabengoa zaldibartarra. “Milaka dira omenduak izan daitezkeen oinarritzko kultur langileak, baina denen izenean lurralde bakoitzeko pertsona batek jasoko du saria”, azaldu zuen Nerea Mujika Gerediagako presidenteak, eguaztenean, Plateruenean eskaini zuten prentsurrekoan. Horrenbestez, Bizkaiko kultur eragileen ordezkari izango da Justo Alberdi iurretarra, eta diasporakoena Zengotitabengoa zaldibartarra. Kepa Mendia arabarra, Jaime

Albillos gipuzkoarra, Iparraldeko Patxika Erramuzpe eta Mari Carmen Belaza nafarra ere sarrituko dituzte, abenduaren 3an, San Agustin kulturgunean egingo duten ekitaldian.

51. Azokako omenduen izeak aurreratzeaz gainera, hainbat kultur diziplinaren topaleku diren Durangoko Azokako guenean aurtengo eskaintzaren berri ere eman dute asteon. Abenduaren 2tik 6ra Durango euskal kulturaren plaza bihurtuko dute Areto Nagusia, Ahotsenea,

Saguganbara, Plateruena, Iru-dienea, Szenatokia, Kabia eta Azoka TB gunek.

Azken urteetan bezala, berbaldiak, tailerrak, aurkezpenak, kontzertuak edota antzerki zein film emanaldiak izango dira, besteak beste, zortzi gune horietan. Landakogunetik San Agustin kulturguneraino hedatuko den kulturaren plaza horretan 200 ekitaldi baino gehiago izango dira aukeran: 45 aurkezpen izango dira Areto Nagusian; 120 Ahotsenean; Azokako egun guz-

tietan hartuko du kontzertu bat Plateruena; film emanaldiak eta tailerrak izango dira Iru-dienea guenean; antzerki emanaldiak Szenatokian; kultura digitaleko euskal komunitateen elkargune izango da Kabia; literaturagaz gozatu eta hizkuntzagaz jolasteko aukera izango dute umeek Berbaro elkartek kudeatzen duen Saguganbara guenean; eta euskal kulturaren inguruko kanal tematikoa eskainiko du Azoka Telebistak.

Gonbidapena egin du Nerea Mujika Gerediagako presidentek: “Azokaren esperientzia bizitzekoa da; zuek etorri, guk prest izango dugu dena”. Abenduaren 2tik 6ra Durangoko Azokara datorren bisitariak kultur ekoizpeneko 349 nobedade ere topatuko ditu 246 erakustokitan.

### ► BERTSOLARITZA

Itsaso Esteban Markina-Xemeingo Uri frontoian jokatu dute, bihar, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren barruko lehenengo finalaurrekoa. Txapelketako aurreko saioak bezala, 17:30ean hasiko da biharkoa, eta Durangaldeko bi bertsolarik parte hartuko dute bertan: Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak eta Txaber Altube abadiñarrak. Jone Uria, Joseba Barandiaran, Nerea Ibarzabal eta Oihana Bartra bertsolariek osatuko dute bertso saio horretako seikotea.

Inoiz Bizkaiko txapelketako finalista izandakoa delako, kanporaketen fasean sartu zen Eneko Abasolo *Abarkas* txapelketara; Barandiaranek eta Ibarzabalek bezala, txapelketaren udaberriko faseetik dihardu Txaber Altubek txapelketan parte hartzen. Jone Uria eta Oihana Bartra, berriz, 2014ko txapelketan finalista izan ziren,

eta zuzenean sailkatu dira azken fase honetara.

Biharko lehenengo finalaurrekoa irabazten duen bertsolaria zuzenean sailkatuko da finalera; gainontzekoek puntuazioaren arabera edukiko dute horretarako aukera.

Biharko lehenengo finalaurrekoa irabazten duen bertsolaria zuzenean sailkatuko da finalera

Abenduaren 3ko azken finalaurrekoaren ostean jakingo da zeintzuk diren 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalistak. Abenduaren 17an, 17:00etan, Bilbao Arenan jokatu dute finala. Finalaurrekoetarako zein finalerako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean eskuratu daitezke.

## Zuzenean finalera sailkatzeko txartel bat izango da jokoan bihar Markinan jokatu dute saioan

Txaber Altube eta Eneko Abasolo ‘Abarkas’ daude biharko saioko seikotean



Kanporaketen fasean sartu zen txapelketara Eneko Abasolo ‘Abarkas’ iurretarra.



# ‘Deshakespeareazioa’ sentitzeko aukera izango da San Agustingo oholtza gainean

Karrika antzerki taldeak Shakespeareren testuetan oinarritutako antzezlanak aurkeztuko du gaur



**> ANTZERKIA** Aimar Esteban Karrika antzerki taldeak Shakespeareren testuetan oinarritutako antzezlanak aurkeztuko du gaur, 22:00etan, San Agustín kultur gunean.

*Hitzari gorazarre* zikloaren barruan hainbat elkartek osatutako ekintza kulturalak egiten joan dira hile honetan zehar. Durangoko Karrika antzerki taldearen emanaldiaz amaituko da zikloa. Gaur *Deshakespeareazioa*, Shakespeare antzerkigile ingelesaren testuetan oinarritutako obra aurkeztuko dute San Agustinen. Ikuskizunerako sarrerak doakoak izango dira.

Antzezlan honetan, *Uda gau bateko ametsa*, *Hamlet*, *Errege gaua* edo *Zeuk nahi duzun ez jatorrizko* testuak entzun ahal izango diren arren, Jose Martín Urrutia ‘Txotxe’-k zailtasun handiak izan ditu euskarazko testuak aurkitzeko, “obraren izenak zerikusia dauka testuak bilatzeko izandako zailtasunekin. Batzuk zaharkituta geratu dira, eta berriak ere moldatu behar izan ditugu, moldatu barik ez dago eta ulertzetik”,

aitortu du. Moldaketan moldaketak ere egin behar izan dituzte hainbat kasutan. “Aktoreentzat ere plus bat zen konplexutasun hori testuak ikasteko orduan”. Hamar aktore izango dira ohol-tza gainean, eta bi teknikariren laguntza izango dute.

**Shakespeareren unibertsoa** Hala ere, obra honek ez du antzerkigile ingelesaren unibertsoa testuen bidez soilik oinarritzen. Badaude hitz neurtuan egingo diren zatiak, baina, horrez gain, Macbeth-eko pertsonaiak edo Shakespeare bera ere agertzen da, gaztetan harakina zenean. Merkatu itxura duen eszenografia prestatu dute istorio berri bat kontatzeko. Gertatzen den guztia Shakespeareren garaian oinarritzen da. “Garai horretan gizonezkoek bakarrik antzeztu ahal zuten, emakumeen papera ere gizonek antzeztu zuten, eta hori ere keinutzat erabili dugu”.

**Deshakespeareazioa** Zailtasunak ez dira soilik euskarazko testuak aurkitzeko or-

duan heldu, “gauza asko sartu gura genituen antzezlan bakar batean, eta hori oso zaila da”. Zailtasunak zailtasun, Shakespeareren unibertsoa ohol-tzarako erronka gogoz hartu dute Karrika antzerki taldekoek

Karrika taldearen ‘Deshakespearezioa’ antzezlanagaz itxiko dute ‘Hitzari gorazarre’ zikloa

Karrika antzerki taldeak Shakespeareren hainbat testutan oinarritutako istorioa kontatzen du

Dramagilearengandik “tragediak era konstruktiboan amaitzen dituela” ikasi du ‘Txotxe’-k. “Tragedian amaitu arren gero badago alde positiboa ateratzen dion zerbait, gatazkei beste buelta bat ematen die”.

Shakespearere ngandik gehien ezagutzen duguna bere

obra da, “baina ez dakigu oso ondo benetan nor izan zen, tarte ilun bat dago hor, eta gu tarte horretan murgildu gara gure istorioa kontatzeko”, adierazi du.

**Hitzari gorazarre zikloa**

*Hitzari gorazarre* Kirikiño, Txirrita, Cervantes, Arrese Beitia eta Shakespeare idazleak hil zireneko urteurrenak ospatzeko ekimenaren barruan, “Shakespeare geuk, Karrikak, omentzea iruditu zitzaigun logikoa”.

Hala ere, ziklotik haratago zabaldu gura dute. “Hainbeste esfortzuren ostean, barikuan jendeak erantzun ona ematea espero dugu, eta asmoa antzezlan egiten jarraitzea da”, adierazi du ‘Txotxe’-k. Barikuko antzespenearen ostean, publikoaren erantzuna neurtuko dute.

*Hitzari gorazarre* Durangoko Udal Bibliotekak, San Agustín kulturguneak, Karrika antzerki taldeak, Gerediaga eta Berbarro elkar-teek, Durangaldeko bertso eskolak eta Plateruenak antolatutako zikloa izan da, eta Durangoko Udalaren laguntza jaso dute.

## GEURE DURANGALDEA

**JON ANDER URKIAGA EGIDAZU**

Irakaslea



## Gustuko ditudan gauzak

Izugarri gustatzen zait, euria hasten delarik, tanta ba-koitzak nire zira zahar-aren kontra jotzean ateratzen duen doinu plastifikatua. Mela-mela geratuko naizela jakin arren, bustitzeko beldurrik gabe.

Hosto kulunkari bat haizearen konpasean dantzan ikustea ere atsegin dut, lo eternala sorlekutik hiru metrora hartu orduko. Bai baitakit milaka anaia-arreba izango dituela inguruan, eta zoragarria da udazkena margotzen duen paletan nahastu den kolore anabasa. Atsegin dut itsaso horretan plisti-plasta ibiltzea.

Benetan dut gogoko gauaren erdian esnatzea, ordu-lariari begiratzea eta oraindik 02:00ak direla ikustea. Gau osoa dut aurretik oraindik, makarrak kendu baino lehen.

Laket zait zure ondoan orduak igarotzea, elkarri hitzik esan beharrik gabe, elkarri begietara begiratzeko beharrik eduki gabe, burusia lagun, egunak astiro-astiro iluntzen duen bitartean.

Poztasuna kilotan saldu nahi digute, edo megabytetan, handitasunean zein abiaduran. Hirugarren solairuan ezkerreko pasabidetik jo eta azken aurreko apalen behealdean. Kreditu-txartelarekin ala eskudirutan? Ba al duzu bazkide txartela? Baina niri neuri emazkidazu instanteak, minutuak eta orduak; neure kasa moldatuko naiz zoriotsu izateko; nire inguruan dut behar dudana guztia. Eta hala ez denean, merkealdirik onenean ere ez dut behar dudanga aurkituko. Lasai, neure kasa moldatuko naiz zoriotsu izateko.

**Deshakespearezioa**  
Karrika antzerki taldea  
Azaroaren 18an, 22:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

**Hego-koloreak**  
XXVII. musika hamabostaldia  
Enrike Solinis & Euskalbarrokensamble  
Azaroaren 19an, 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEa

**PLATERUENA**  
Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**  
EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**AZAROAK 18**  
21:30ean  
PUB QUIZ  
LEHIAKETA

**AZAROAK 19**  
22:00etan  
LEDAKARIS MUERTOS  
+ULTIMATUM

**AZAROAK 20**  
18:30ean  
EUSKAL KANTAK  
KANTALDIA





# JATETXE GIDA

ÑAM!



**PLATERUENA Kafe Antzokia**  
Landako etorbidea, 4 DURANGO  
**Tel.: 946 030 300**

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.  
[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)

ÑAM!



**OLAJAUREGI JATETXEA**  
Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO  
**Tel.: 946 200 864**

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.  
[www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)

ÑAM!



**KOBICA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 DURANGO  
**Tel.: 946 810 003**

Egile sukaldaritza eta tradizionala.  
Menu bereziak eta karta.

ÑAM!



**KANBIO JATETXEA**  
San Migel Dueda auzoa  
AMOREBIETA-ETXANO  
**Tel.: 946 730 033**

Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.

ÑAM!

**MENU BEREZIA**

Sarrerakoak (bi aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)



**JULIANTXU**  
Ituriza, 2 BERRIZ  
**Tel.: 946 824 077**

Karta. Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**





Txomintxo eta Perutxo pertsonaien inguruko laugarren ipuina kaleratu dute Txomin eta Peru Magdalenak.

## Magdalena anaien eskutik, maitasuna zer den argituko dute Txomintxok eta Perutxok

‘Txomintxo eta Perutxo maiteminduta’ liburu berria aurkeztuko dute, gaur, Hitz liburu-dendan

**> LITERATURA** Itsaso Esteban Txomintxo eta Perutxo pertsonaien abenturen kapitulu berri bat plazaratu dute Peru eta Txomin Magdalena durangarrek, Elkar argitaletxeagaz. *Txomintxo eta Perutxo maiteminduta* daude ipuin berrian, eta istorio

hori aurkeztuko dute egileek, gaur, 18:30ean, Hitz liburu-dendan. Aurreratu duenez, Durangoko Azokan ere egongo dira irakurleekin hartu-eman zuzena edukitzeko prest.

Txomintxo eta Perutxoren istorio guztiak aurkeztu izan dituzte beraien herriko Hitz liburu-dendan, eta Txomin Magdalenak kontatu duenez, aurreko liburua han aurkeztu zutenean sortu zitzaizen liburu honetarako ideia: “Txomintxok eta Perutxok nobiarik ez ote daukaten galdetu zigun ume batek, eta hortik tiraka sortu da istorio berri hau”.

Beraien sentimenduei ize-nik edo mugarik ezarri barik maitemindu dira, bai: bata besteagaz, lagunekin... Eta ondorio interesgarriak atera dituzte. Txomintxo pertsonaiak liburu berrian dioten bezala, “nik uste dut horiek oso pozik daudela elkarrekin, izan daiteke hori maiteminduta egotea”.

### Beste ikuspuntu batetik

Moralista izan barik, maitasuna ulertzeko modu ireki bat erakusten du liburuak. “Hainbestetan ikuspuntu berdinetik landu den gai horri begiratzeko beste modu bat proposatzen dugu”, dio Peruk. “Gero eta liburu gehiago dago bestelako ereduak erakusten dituztenak, eta bide horretan beste ale bat da hau”, gehitu du Txominek, “betiere naturaltasunez landua, eta dibertsioagaz lotua”.

Haur hezkuntzan irakaslea da Txomin Magdalena, eta besteak beste, umeen irakurketa klubak dinamizatzen ibiltzen da Peru. Lehen eskuko harremana dute, beraz, umeekin, eta horrek eragina du beraientzat sortzen dituzten lanetan: “Uste dut gero eta hobeto ulertzen ditugula umeak eta gustatzen zaien literatura mota: dibertsioa dute gustuko, lar moralista bazoaz, segituan harrapatu eta alboratzen zaituzte...”.

Iosu Mitxelenak egin ditu *Txomintxo eta Perutxo maiteminduta* liburuko ilustrazioak ere, eta Magdalenatarrak oso pozik daude beragaz: “Oso ondo ulertzen dugu elkar, eta asko disfrutatzen dugu beragaz; idatzitakoa irudikatzen mugatu barik, istorio paraleloak sortzen ditu bere irudiekin”.

KONTAKTUA

BIZITZEKO

BIZITZEKO

BIZITZEKO





**INDARKERIA MATXISTAREN  
KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

# **AZAROAK 25**

***Tratu txarren biktima diren emakumeentzako  
arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa  
946 200 492***



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango





Isabel Abella | Abokatua | Gasteiz, 1979

# “Emakumeen kontrako biolentziari aurre egiteko funtsezkoak dira udalak”

Berbaldia eskainiko du Isabel Abella abokatuak, azaroaren 29an, 19:15ean, Elorrioko pleno aretoan



“

**Udaltzaingoaren eta  
Gizarte Zerbitzuen  
espezializazioa  
landu behar da”**

“

**Instituzioek gizarte  
feminista baten  
garapena bultzatu  
behar lukete”**

gu, behar besteko aurrekontua daukana. Hain justu ere, aurrekontu horiek izango dira udalen genero biolentziaren kontrako konpromisoaren erakusle. Bestalde, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa dira, askotan, emakumeak artatzen dituzten lehenengoak, eta, horregatik, alor horien baliabideak eta horietan dihardutenen espezializazioa bermatu behar dira. Izan ere, Gizarte Zerbitzuak dira laguntza integralaren arduradakutenak. Azkenik, instituzio publikoek gizarte sare feminista baten garapena bultzatu behar dute: emakumeen eskubideen alde eta diskriminazioaren kontra borrokatuko den jendartea. Gizarte osoari dagokio biolentzia hautematea, eta berau jasaten duten emakumeei laguntzea.

**Beste herrialde batzuetakoa-gaz alderatuta, zelakoa da, zure ustez, biolentzia matxistari aurre egiteko daukagun legedia?**

Espanian 2004an onarturiko legea mugarri izan zen, eta Nazio Batuen saria ere jaso zuen. Emakumeek beraien bikotekide edo bikotekide ohiengandik jasaten duten biolentziari heldu zion lege horrek, eta adin txikikoak ere barne hartzen zituen. Baina, emakumeen kontrako gainontzeko biolentziak kanpo utzi zituen. Nafarroan eta EAEn, adibidez, aurrerapauso gehiago eman izan diren arren, Europa Iparraldeko herrialdeetan badaude hemen goak baino eredu aurreratua goak. Europako Kontseiluak 2014an martxan ipini zuen hitzarmenak emakumeenganako biolentzia mota guztiak hartzen ditu kontuan, ez genero biolentzia bakarrik, eta uste dut arlo horietan gero eta aurrerapauso gehiago emango ditugula.

**Zelan uztartu legedian eta arlo instituzionalean ematen diren aurrerapausoak eta arlo sozialekoak?**

Mugimendu feminista legediaran aurretik joan izan da, eta orain ere akuilu lanak egiten ditu: emakumeek hamarkadak daramatzate beraien eskubideen alde borrokatzen, eta horrek bultzatu ditu legediaren aldaketak. Edozelan ere, bada go hartutako neurrien eta emakumeen kontrako diskriminazioaren errealitatearen arteko kontraste bat, eta egia da baita ere, legediaren aldaketa Europako edo nazioarteko beste erakunde batzuen exijentziaz ere egiten direla.

**> BERDINTASUNA** Itsaso Esteban ‘Indarkeria matxistari aurre egiteko estrategia instituzionala’ berbaldia eskainiko duzu, azaroaren 29an, Elorrian. Zer entzuleri zuzendua dago? Arlo politikoan dihardutenei zuzenduriko berbaldia da, baina interesa daukan edozeinentzat ere zabalik dago.

**Durangaldean biolentzia matxistaren kontra aplikatzen den protokoloaren aholkulari izan zinen. Bere aplikazioaren zer balantze egiten duzu?** Bost urte daramatzagu lehenengo Protokolo hori ezartzen, eta denbora honetan hainbat hobekuntza egiten joan gara; Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalen, Amankomunazgoaren, Osakidetzaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioari dagokionez, esaterako. Hiru mailatan gauzatzen da koordinazio hori: mahai orokor bat dago, mahai politiko bat, eta teknikoak azkenik. Horietan parte hartzen dutenek biolentziaren inguruko formazioa jasotzen dute urtero, eta horrek lagundu egiten du zerbitzua hobetzen eta eragileen espezializazioa garatzen.

**Zer onura ekarri du Protokoloa martxan jartzeak?**

Besteak beste, eta oraindik egiteko asko dugun arren, lau udalerrri hauetan aurre egin

## ELORRIO, INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA!

Etorri kontzentrazioa barikuan, 25ean, 19:00etan, plazan!

24 eguena

**18:30** Berrizeko Kultura Etxea

Durangaldeko Beldur Barik-en bideo lehiaketaren sari banaketa.

25 barikua

**18:00** Udaletxeko Pleno Aretoa

Udal Osoko bilkuraren batzarra, Azaroaren 25arekin bat egiteko.

**17:00-18:30** Iturri Kultur Etxeko Liburutegian Berdintasuna lantzeko Lapbook tailerra. Liburuxkak eta paper-mekanismoak dituen zabalgarria den liburua egingo dute, oihala, kartulina, belkroa... erabiliz. Umeak: 6-12 urte. Bi eguneko tailerra izango da: azaroaren 25a eta abenduaren 2a. Plaza mugatuak: Liburutegian izena eman

**19:00-19:15** Herriko plaza Kontzentrazio isila.

**22:00** Arriola Antzokia

“Arizona” antzerkia. HISTRIÓN TEATRO

27-28 domeka-astelehena

**20:00** Arriola Antzokia

“Un amor de verano” filma.

Zuzendaria: Catherine Corsini (+ 12 urte / 105 min.)

29 martitzena

**19:15** Udaletxeko Pleno Aretoa

Hitzaldia: “Indarkeria matxistari aurre egiteko estrategia instituzionala”. Hizlaria: Isabel Abella, abokatua eta Indarkeria matxistaren biktimei arreta egiteko Durangaldeko Protokoloaren aholkulari teknikoak.

## Elorrioko ikastetxeek antolatutako ekintzak

Elorrioko Eskola Lourdeseko Ama · Txintxirri Ikastola

Elorrioko Institutua · Maria Bitarteko Ikastetxea

Ikasleekin hausnartze-tailerrak: indarkeria matxista zer den argitzeko, horren aurreko sentimenduak eta horren kontrako konpromisoak hartzeko. Berdintasunaren alde abestu, dantzatu, bertsoak bota eta antzeztuko dute (“biolentzia non, komunitatea han”).

Puntu morea: irudikatu, marraztu, barruan mezuak idatzi eta ikasleen eskuaren aztarnak jarri. Familiei mezua helarazi: emakumeen kontrako indarkeria eta berdintasunean hezteko beharra.

Informazio gehiago: [www.elorrio.eus](http://www.elorrio.eus)





Jone Gurrea Iza | Getxo, 1978 | Sortzen Aholkularitza

## “Teknologia berrien eta sare sozialen bidez indarkeria adierazpide berriak agertu dira”

Mikromatxismoa izango dute hizpide Zaldibarren

➤ **ELKARRIZKETA** J. Derteano  
Sortzen Aholkularitzako Jone Gurrea Iza kideak mikromatxismoaren eta indarkeria sinbolikoaren gaineko hitzaldia eskainiko du datorren martitzenean, 18:00etan, liburutegi zaharrean.

**Zelan definituko zenuke mikromatxismoa?**

Apurka-apurka eta konturatu barik, modu inkontzientean barneratzen ditugun mezu, irudi eta ideiek eragiten dute mikromatxismoa. Gizarteko esparru guztietan aurkitu daiteke, baina, sarritan, adibide konkretu bat jarri arte ez gara ohartzen. Naturalizat jotzen ditugun jokaerak dira.

**Jokabide matxista batzuek gero eta gaitzespen handiagoa dute gizartean, baina ematen du mikromatxismoak baduela legitimazio maila bat oraindik.**

Intentsitate maila askotako mikromatxismoaren isla diren askotariko jarrerak legitimatuta daude gizartean, onartutzat ematen dira. Legitimazioarena kontzeptu ukiezina dela ematen du, baina oso garrantzitsua da indarkeria kasu denetan. Indarkeria hor dago, legitimatuta dagoelako. Europan, estatuan zein Euskal Herrian ehunka araudi daude, bai, baina badago legitimazio bat, eta horregatik existitzen da indarkeria.

**Gehiago edo gutxiago, denok daukagu mikromatxista bat gure barruan?**

Gizonek zein emakumeek. Erantzukizuna denona da. Denok ditugu gure mikromatxismo zertzeladak jokaera batzuetan. Gertatzen dena da mikromatxismoaren jokaera banan-banan eta modu isolatuan aztertuz gero ez diegula garrantzirik ematen. Baina orain bat eta gero bestea zenbatzen hasten garenean konturatzen gara arazoaren benetako neurriaz.

**Mikromatxismo denek larritasun maila berdina dute ala mailakatu daitezke?**

Batzuk estaliak, ezkutukoak dira, eta beste batzuk ez hainbeste. Estaliak detektatzea gaitzagoa da, eta jendarteak ez ditu larritzat hartzen. Agerikoa goak diren kasuetan jendarteak kontzienteagoa izaten da.

**Kasu bietako adibide bana emango diguzu?**

Agerikoetan genero indarkeriaz harreman zuzenagoa duen adibide bat izango litzateke; adibidez, gizonezkoak emakumezkoaren rola gutxiesten duenean: umeein etxean egon behar duena emakumea denean... Ageriko mikromatxismoa genero indarkeria bihurtu daiteke. Ez da beti emango, baina batetik besterako garapen hori eman daiteke. Oharkabeko kasuen artean, adibidez, hau: bikote batean kotxea biek badute, zeinena izan ohi da handiagoa edo potentzia handikoagoa? Normalean, gizon edo senarrarena. Edo telebistako agintea nork izan ohi du eskuarte? Edo bankuko kontu korrante zenbakian noren ize-na agertzen da lehenengo?

**Teknologiaren aroan bizi gara eta horrek eragin zuzena du hartueman ohituretan: Mugikorak, sare sozialak... Zer eragin du horrek guztiak mikromatxismo kasuetan?**

Eragin zuzena eta negatiboa dute, bai mikromatxismoaren eta baita, oro har, indarkeria matxistaren adierazpenetan zein zabalkundean ere. Teknologia berrien bidez indarkeria adierazpide berriak agertu dira. Hori argi ikusten dugu sare sozialetan zein WhatsApp-ean. Gizonak emakumea kontrolatzeko aukera berriak sortu dira: mezuak irakurritz... Gizonari eta emakumeari loturiko estereotipoak ere askoz errazago zabaltzen dira. Gainera, emakumeek, horrela hezita daudelako, askoz gehiago adierazten dituzte euren sentimenduak sare sozialetan. Edo gizonezkoek baino argazki gehiago sartzen dituzte. Sentimenduen gehiegizko esposizioa deitzen diogu. Horrek ahultasun irudia ematen du.



# AZAROAK

# 25

2016

## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

**AZAROAK 18 BARIKUA**  
Tailerra: Indarkeria sexista sare sozialetan.  
18:00etan. Gazte lekuan  
12-16 urte bitarteko gazteentzat

**AZAROAK 22 ASTEARTEA**  
Hitzaldia: Mikromatxismoak eta indarkeria sinbolikoa  
18:00etan, liburutegi zaharrean  
**Jone Gurrea (Sortzen)**  
Elebiduna  
PLAZA MUGATUAKI  
[Izena emateak, udaletxean, liburutegian edo berdintasuna@zaldibar.eus helbidera idatzita, Azaroak 18a baino lehen.]

**AZAROAK 25 BARIKUA**  
Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ibilbidea. Lehendakari Agirre parkean hasi eta udaletxeraino. 18:30

.....  
**JASO EZAZU ZURE PUNTU MOREA ETA ERAKUTSI ZURE LEIHOAN**  
Eskuragai udaletxean eta liburutegian.  
.....

**BELDUR BARIK TOPAKETAK**  
**Durangaldeko topaketa**  
Azaroak 24, 18:30 Berriz  
**EAEko topaketa**  
Azaroak 26 urduliz-en  
[Doako autobusa Beldur bariken eskutik.]



**> SARI BANAKETA** M.Z.

Irailetik azaro hasierara arte Durangaldeko hainbat gaztek Beldur Barik Jarrera bideo lehiaketan parte hartu dute. Lehiaketa hau, Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarko udalen eskutik, gazteak indarkeria matxistaz kontzientziatzeko erabili dute.

12 eta 26 urte arteko gazteek parte hartu ahal izan duten lehiaketan, guztira, hamar bideo-lan aurkeztu dituzte Durangaldean. Abadiñar gazteek “Janzkeragatik epaitzen. Zergatik?” eta “Zergatik hau nesko bakarrik?” lanak aurkeztu dituzte Beldur Barik lehiaketan, berriztarrek “Salaketa” eta “Beldur Barik Plazara”, durangarrek “La inconsciencia sexista”, elorriarrek “Eraso sexistak”, “Txiste matxistak”, “Eskuak gurutzatuz” eta “Soinekoak denontzat”, eta iurretarrek “Ez dizute inoiz esan?”.

Indarkeria matxista prebenitzea helburu duen lehiaketaren sari banaketa azaroaren 24an egingo dute, arratsaldeko 18:30ean Berrizko Kultur Etxean. Bertan, 300 euroko sari bi, maila bakoitzeko irabazleentzat, eta 100 euroko beste bi, aipamen bereziarentzat, banatuko dituzte.



Kohatu taldeko kideek abuztuan grabatu zuten maketa, Igorren eta Berrizen.

## Hamar lan indarkeria matxistaren kontra Durangaldean

12 eta 26 urte bitarteko gazteek parte hartu dute Beldur Barik lehiaketan

Errespetua, berdintasuna eta elkarkidetzaz sustatzeko asmoz egiten den lehiaketan, epaimahaia Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zal-

dibarko udalek aukeratutakoa da. Epaimahaia berdintasun politiketan eta emakumeekiko indarkeriaren aurka lan egiten duten pertsonen osatuko dute.

Lehiaketaren aurkezpenean argitaratu zituzten oinarrietan jakitera eman zutenenez, epaia ematerako orduan, bideoetan zabaldu den mezuari emango

diote garrantzi “berezia” epaimahaiko kideek.

Horrez gain, hizkuntzak ere balio “garrantzitsua” izango duela adierazi zuten Beldur Barik Jarrera lehiaketa antolatu dutenek. Hau da, lanak gaztelaniaz aurkeztu ahal izan diren arren, euskarazko lanek balio erantsi bat izango dutela jakinarazi zuten.

Bestalde, Durangaldeko lehiaketan saria jasotzen duten lanek, lehiaketa orokorrean, Euskadin egingo den lehiaketan ere sariak jaso ditzaketela jakinarazi zuten antolatzaileek.

### Lehiaketa orokorra

EAEko Beldur Barik lehiaketa orokorrera, berriz, 339 lan aurkeztu dituzte aurten. 12 eta 17 urte bitarteko gazteek horietako 245 aurkeztu dituzte, eta 18 eta 26 urte bitartekoek 94.

Lehiaketa honetan ere, maila bakoitzean, sari bi banatuko dituzte, lehenengoa 500 eurokoa eta bigarrena 300 eurokoa.

Horrez gain, beraientzat lanik onena dena aukeratu ahaliko dute herritarrek, bozketa bidez. Eta botorik gehien jasotzen dituen lanak 300 euroko saria jasoko du.

Sari banaketa hau azaroaren 26an egingo dute Urdulizen.

### -BERRIZ- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

**AZAROAK 18-28** Berrizko Kultur Etxean  
“Afganistango emakumeak”, argazki erakusketa.

**AZAROAK 23** Berrizko Kultur Etxean  
19:30 PAPUSZA (film-dokumentala).

**AZAROAK 24** Berrizko Kultur Etxean  
18:30 Durangaldea BELDUR BARIK JARRERA 2016  
Lehiaketaren sari banaketa / Topaketa.

**AZAROAK 25**  
19:00 Kontzentrazio-martxa.  
Udaletxetik - Urtiaga plazara.  
Ondoren, “Eraso sexistarik ez jaieten!” Bideoaren aurkezpena.  
22:00 Kultur Etxean - MUSTANG (filma).

**AZAROAK 26**  
EAE BELDUR BARIK JARRERA 2016  
Lehiaketaren sari banaketa /Topaketa (Urduliz)  
Autobusak doan. Informazioa: berdintasuna@berriz.eus

20:00 Kultur Etxean  
ARIZONA (antzerkia) Sarrera: 8,00euro.

**AZAROAK 27** Kultur Etxean  
19:00 MUSTANG (filma).

**AZAROAK 30** Kultur Etxean  
18:30 Nola identifikatu puntu ilunak Berrizen. Tailerra.  
Izen-ematea: dohanik berdintasuna@berriz.eus

Punto morea, herriko gune hauetan eskuragarri  
Udaletxean - Kultur etxean - Ikastetxean - Kiroldegian



## Herriko puntu ilunak identifikatzeko tailerra, Berrizen

Azaroaren 25ean, manifestazioa egin eta gero, herritarrek egingako bideoa proiektatuko dute

### > EGITARAUA

M.Z. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, egitarau zabala antolatu du Berrizko udalak. Gaurtik azaroaren 30era arte argazki erakusketak, kontzentrazioak, hitzaldiak... egongo dira herrian.

Azaroaren 25a dela-eta antolatu duten egitaraua gaur hasiko da *Afganistango Emakumeak* izeneko argazki erakusketagaz. Hilaren 23an, berriz, *Papuszka* film-dokumentala ikusteko aukera egongo da arratsaldean, 19:30ean, eta hurrengo egunean, azaroaren 24an, Durangaldeko Beldur Barik Jarrera lehiaketako sari banaketa egingo dute. Sari banaketa honetan, Durangaldean lehiaketa honetan aurkeztu diren hamar bideo lanak sarituko dituzte.

Barikuan, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, kontzentrazio

martxa egingo dute, 19:00etan, udaletxean hasi eta Urtiaga plazaraino.

Manifestazioa bukatu ondoren, herrian eta herritarrek egingo duen “Eraso sexistarik ez jaieten!” bideo lanaren proiektzioa

**“Eraso sexistarik ez jaieten!” herritarrek egingako lana aurkeztuko dute**

egingo dute. Gauean, 22:00etan, *Mustang* filmaren emanaldia egingo dute Berrizko Kultur Etxean.

Bukatzeko, azaroaren 26an, *Arizona* antzelana ikusteko aukera egongo da, eta hilaren 30ean herriko puntu ilunak nola identifikatzen diren azalduko dute. Bertaratu gura duenak [berdintasuna@berriz.eus](mailto:berdintasuna@berriz.eus) -en eman dezake izena.

## ‘Berdintasuna eta musika’ berbaldia Eeles eta Izagirregaz Zornotzan

### > ZINEA

J.Derteano Mireia Izagirre eta Miren Eeles musika arloko profesionalek berbaldia eskainiko dute azaroaren 22an, 20:00etan, Zornotza Aretoan. ‘Emakumeak eta musika’ izenburupean musikaren arloan izan dituzten bizipenak kontatuko dituzte mundu horretan emakume izatearen ikuspegitik.

Azaroaren 25ean, 13:00etan, kontzentrazioa egingo dute Herriko Plazan, eta udal adierazpena irakurriko dute. Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara, Zubiondo parkea lengoaia sexistaren gainean hausnarketa egiteko gune bihurtuko da. Abenduaren 2ko ostiralean errepikatu egingo dute ekimena, 17:00etatik 19:00etara.

Horrez gainera, zapatuan autodefentsa feministarako tailerra antolatuko dute (izen emateko epea itxita dago), honako helburuekin: emakumeen konfiantza garatzea, eta arrisku egoerei aurre egiten ikasteko teknikak lantzea.



# ‘Zapata Gorriak’ kale instalazioa egingo dute domekan

Elina Chauvet mexikarraren lan artistikoaren moldaketa egingo dute azaroaren 27an

➤ **ABADIÑO** Aimar Esteban

“Emakumearen aurkako indarkeria agerian jartzeko eta herritarren kontzientzia pizteko” *Zapata Gorriak* kale instalazioa prestatuko dute Abadiñoko kaleetatik.

Abadiñoko Berdintasun sailak emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunari loturik prestatutako ekimena izango da. Lan artistiko hau kalean egingo dute, azaroaren 27an, eta edozein herritarrek parte hartu dezake. Instalazioa egun berean kentzeko asmoa dute, beraz, domekan bakarrik egongo da ikusgai Abadiñoko kaleetan zehar.

Kale instalazio hau prestatzeko, aurreko egunetatik ere parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Emakumeen oinetakoak biltzeko deia egin zuten, eta gaur amaitzen da udal mediatekan zein Errota kultur

etxean zapatak uzteko epea. Bildutako oinetako guztiekin lan artistiko hau osatzea dute helburu. Bilketaren ostean, zapatak margotzeko tailerrak egingo dituzte astelehen eta eguaztean, Txanporta kultur etxean eta Errotan.

**Elina Chauvet mexikarrak egin zuen lehenengo aldiz ‘Zapata Gorriak’ instalazioa, Ciudad Juarez**

“Gure asmoa da gizonek zein emakumeek parte hartzea lan honen sorkuntzan, bere bitartez indarkeria matxistaren indarra, hedadura eta larritasuna ezagutarazteko”, esan du Yanire Moreno berdintasun saileko zinegotziak.



‘Zapata Gorriak’ instalazioak oinetako gorritz beteko ditu Abadiñoko kaleak.

Elina Chauvetek 2009an egin zuen lehenengo aldiz Zapata gorriak lana, Ciudad Juarez (Mexiko) hirian gertatutako emakumeen hilketa eta desagertpenak salatzen. Hogeita hamahiru zapata jarri zituen Juarezeko etorbidean. Zapatak emakumearen ikurtzat erabiltzen ditu; kolore gorriak, aldiz, heriotza irudikatzen du, baina

baita pasioa eta bizitza ere. Artistak mexikarraren obra gurera ekarri gura dute Abadiñoko berdintasun sailetik.

**Ibilbide luzeko lana**

Domekan kaleak zapata gorritz beterik ikustea izango da helburua, eta horrela, jendeak indarkeria matxistaren aurrean hausnarketa egin, eta arazoaren

larritasuna agerian jarri gura dute. Jendeak kontzientzia hartzeko deia izango da, elementu artistikoetatik abiatuz.

Kale instalazio hau munduko hainbat herrialdeetako hirietan egin dute. Besteak beste, Italia, Txile, Ekuador, Espainia edo Britainia Handiko zenbait hiritan. Euskal Herrian lehenengoz ikusi ahal izango dugu.

## Emakumeen eskubideei buruzko lege aholkuak emango dituzte kalean

Isabel Abella eta Silvia Concha abokatuek lege aholkularitza emango dute Abadiñon

➤ **ABADIÑO** Aimar Esteban

Emakundek eta Bizkaiko Foru Aldundiak abiatu duten *Abokatuak kalez kale* izeneko kanpai-

naren barruan, Isabel Abella eta Silvia Concha abokatuek emakumeen eskubide, kontziliazio eta erantzunkidetasunari



Abokatuak Trañabarren eta San Trokaz kaleetan egongo dira.

buruzko legegintza aholkuak emango dituzte Abadiñoko kaleetan.

Matienako Trañabarren kalean egongo dira datorren asteko martitzenean, 16:30etik 18:30era. Hurrengo astean, hilaren 29an, bi abokatuak ordu berean izango dira Zelaiaetako San Trokaz kalean lege aholkuak ematen. Bertaratu gura duen edozein herritarri zuzendutako ekintza izango da.

**Legeak herritarren eskura**

Besteak beste, emakumeen lan eskubideez, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeek dituzten baliabideez eta kontziliazioaz arituko dira. Azaroaren 25eko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunari lotutako ekimen hau emakume zein gizonei zuzendutakoa izatea guratute. Aurreko urteetan ekimen hori arrakastaz egin izan dute, eta aurten errepikatzea espero dute.

Jardunaldi hauen bitartez, “herritarren eskubideak jakinaren gainean jartzea” bilatzen du udalak. Abadiñoko berdintasun sailetik adierazi dutenez, “lege mundua herritarrenganatzea gura dugu, emakumeek eta gizonek beraien bizitzarako baliagarria den informazioa erraz eskuratu dezaten”.

## Abadiño AZAROAK 25 Emakumeenganako indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Abadiñoko Udalak, abadiñar guztiei dei egiten dizuegu parte hartzera ondorengo jardueretan:

• **AZAROAK 21/23** •

**ZAPATOS ROJOS MARGOKETA TAILERRAK**  
17:00/19:00 Txanporta Kultur Etxea (21). Errota Kultur Etxea (23). Emakumezko zapatak ekarri! Udal Mediateka edo Errota Kultur Etxera.

• **AZAROAK 22/29** •

**DERECHOS A PIE DE CALLE**  
Doako Zerbitzu juridikoa (giza eta lan eskubideak, kontziliazioa, genero indarkeriari...buruzko informazioa).

16:30/18:30 Trañabarren kalea, Matiena, Jubilatuen etxearen aurrean (22).  
16:30/18:30 San Trokaz Plaza 1, Zelaia (29).

• **AZAROAK 24** •

**BELDUR BARIK TOPAKETA DURANGALDEA**  
18:30 Sari banaketa teatralizatua, musika, dantza, bertsoak.../Berrizko Kultur Etxea.

• **AZAROAK 25** •

**INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

**UMEENTZAKO ANTZERKIA**  
“FUTBOLARIAK ETA PRINTZESAK”  
18:00 Errota Kultur Etxea

**KONTZENTRAZIOA**  
19:00 Trañabarren Kalea.

**TXAPA ETA BOLTSEN BANAKETA**  
**MARIZIPRIZTINA 2.0**rekin  
19:15 Trañabarren Kalea.  
20:00 Txanporta Plaza.

• **AZAROAK 26** •

**BELDUR BARIK TOPAKETA OROKORRA**  
Autobusean izena emateko azaroaren 10-22 bitartean [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) webgunean.  
16:30 Urduliz.

• **AZAROAK 27** •

**ZAPATOS ROJOS ARTE LANA BISITATU**  
12:00 Traña Plaza.

• **ABENDUAK 1** •

**ANTZERKIA**  
“LA MÁQUINA DEL DUEÑO”  
19:00 Errota Kultur Etxea.









**Jon Munitxa** | Abadiño, 1996 | Eiser Inforlur taldeko txirrindularia

# “Maila onean jarraitzen badut, munduko txapelketan egon naitekeela uste dut”

Ziklo-krolean onenen artean aritu gura du abadiñarrak, eta errepidean taldekideentzat lan egiteko prest dagoela azaldu du



**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Urterik urtera Jon Munitxa gero eta maila hobea eskaintzen ari da ziklo-krolean. 23 urtez azpiko hainbat lasterketa irabazi ditu aurtun, eta munduko txapelketara joateko itxaropena dauka. Ziklo-kros denboraldia amaitu ostean, errepidean arituko da.

**23 urtez azpiko mailan podiumetik podiumera zabilta azken aldian ziklo-krolean.**

Bai, egia esanda, pozik nago orain eskaintzen nabilen mailagaz. Denboraldi hasiera desberdina izan zen.

**Zer gertatu zitzaizun denboraldi hasieran?**

Ingenieritza mekanikoa ikasten dihardut, eta ikasketak nituen buruan. Azterketek edo beste-lako kontuek eragindako larritasuna sentitzen nuen, eta horregatik, edo ez dakit zergatik, txarto hasi nuen denboraldia.

Lasterketei eskas ekin, eta ezin buelta eman. Baina egoera horrek ez zuen luzaroan iraun, eta gorantz egin nuen. Abadiñoko salbuespenagaz; etxean ez nintzen ondo aritu.

**Abadiñon erorikoa izan zen nuen.**

Bai, baina dena ez zen erorikoaren errua izan. Etxeko lasterketa zen, nerbioso nengoen, eta ez nuen neurerik eman. Erorikoaren ostean, eman nuena baino gehiago eman nezakeela uste dut.

“**Errepidean prest nago lagundu behar denean laguntzeko**”

**Ziklo-krolean afizionatuetako hirugarren denboraldian zabilta, eta urtetik urtera aurrera-pausoak eman dituzu. Aurtengorako zer helburu zenituen? Iazko helburua 23 urtez azpiko mailan ondo aritzea izan zen. Euskadin maila horretan ondo nabilela ikusita, beste pauso bat eman gura dut: elite mailan ere ondo aritzea. Aurtun, Euskadiko araudian aldaketa bat eman da; iaz, 23 urtez azpikoek elitekoek baino itzuli bat gutxiago ematen genuen, eta aurtun itzuli kopuru bera ematen dugu. Hori, oro har, guretzat onuragarria dela uste dut; esaterako, elitekoen benetako erritmoa geureagaz alderatzeko eta hobetzeko aukera izaten dugulako.**

**Eliteko onenekin lehiatzea zerumugan gertu ala urrun ikusten duzu?**

Iaz haien eta nire artean zegoen alde hori aurtun dezente murriztu dudala uste dut. Baina

hortik euren mailan aritzera... Lehenengo eta behin, eurek entrenatzeko duten denbora falta zait niri. Bizikletatik bizi dira. Nik unibertsitate, azterketa eta proiektuen artean ez dut hainbeste denbora. Ikasten ibilita eurekin ibiltzea... oso gaitza da.

**Gauza asko dituzu buruan. Denera heldu gura hori ez ote zaitzu kaltegarri?**

Ez pentsa, ikasten bakarrik banenbil, nagiago ibiliko nintzela uste dut. Orain, ikasi behar dudanean ikasi, eta entrenatu behar dudanean entrenatu egiten dut: goizetan entrenamendua, eta arratsaldetan ikasketak. Nire denbora ondo antolatzen ikasi dut. Denbora gehiago izateak ez du beti esan gura gehiago ikasten denik.

**Urritik urtarrilera ziklo-krosa, eta ostean errepidea. Gazterik gastatzen den kirolari bat baino gehiago ezagutu dugu...**

Oraingoz ez dut horren beldurrik. Neguan, esaterako, entrenatzea baino, lasterketak korritzea hobea da. Beharbada, gusatuko litzaidake ziklo-krosetik errepiderako trantsizioan atsedeen gehitxoago izatea, baina, tira, nik beti diot ez dagoela lasterketa baino entrenamendu horberik.

**Urtarrilean munduko txapelketa jokatu da. Inoiz izan zara? Zer aurkera ikusten dizkiozu zeure buruari?**

Ez naiz inoiz egon. Iaz Espainiako txapelketan laugarren egin nuen [23 urtez azpikoan], eta orduan nire aurretik zebiltzan batzuk baino hobeto aritu izan naiz aurtun. Felipe Orts seguru joango dena, baina gainerakoen artean abanikoa irekita dago. Maila onean jarraitzen badut, aukerak izan ditzakedala uste dut.

**Belgikan oso kirol inportantea da ziklo-krosa, eta Duranguesatik urtero joan ohi zarete. Aurtun ere bai?**

Bai, han hiru bat lasterketa korritzeko asmoa dugu. Gero, Euskadiko selekzioako hautatzaileak beharbada Belgikara irteeraren bat antolatuko dutela esan zi-

dan. Ez dakit azkenean aurrera joan den ala ez. Ikusi egin beharko dugu.

**Hara joatea aberasgarria da zuentzat?**

Bai, jakina. Belgikan ziklo-krosa hemen futbola bezalakoa da. Kirol honen benetako errealitatea ikusten duzu han lehiatzen zarenean. Hangoa eta hemen goa ezin daitezke alderatu. Guretzat oso aberasgarria da hara joatea.

**Ziklo-krolean aritzeak zertarako balio du errepidera begira?**

Ziklo-krolean teknika handia hartzen da, batez ere zirkuitua lokaztuta dagoenean. Abiatzeak hobetzeko ere oso baliagarria da. Ziklo-krolean, bihurtuneetatik irtetean, abiadura segituan bizitu beharra dago; zelanbait esanda, askotan esprintatzen dugu. Horrek hasierako abiadura hori lortzen laguntzen du.

**Eta errepideak, zertan laguntzen du ziklo-krolean?**

Iraupenean. Beste ezeren gainetik, iraupena handitzen laguntzen du.

**Berba egin dezagun errepideari buruz. Duranguesako eta Punta Galeako [Getxo] talde bana batu egin dira. Beste Aldetik igotako gazte batzuk eta Britainia Handiko bi ere izango dira, besteak beste. Oilar lartxo ez oilategi berean?**

Ez dut uste. Seguros Bilbaoko [Punta Galeako taldea] txirrindulari batzuk hemengoak dira, gaztetan talde beretan egon gara, elkarrekin entrenatu gara, eta lagunak gara. Ingelesak ondo ibiliko dira, seguru. Ni prest nago lagundu behar denean laguntzeko, ondo dakit-eta ez naizela irabazteko lehiari ibiliko.

**Beraz, morrontza lana egiteko prest zaude?**

Egia esanda, orain arte afizionatuetan sekula ez dut beste baten-tzat lanik egin, talde txikia izan delako. Gutxi izan gara. Orain desberdina izango da, eta taldeko baten batek irabazteko aukerak baldin baditu, ni laguntzeko prest nago.



# Ezkurdi futbol kluba emakumezko futbolarien erakusleihorik onena bihurtu da

Jokalarien formazio egituratu eta trinkoaren alde egindako apustua emaitzak ematen dabil



Ezkurdiko emakumezko talde nagusiaren aurtengo familia argazkia.

**> FUTBOLA** J. Derteano  
Ezkurdi klubak emakumeen futbola sustatzeko egin duen ahalegina bere fruituak ematen dabil. Jokalariak trebatzeko egitura trinkoa finkatzea lortu dute, eta gaur egun maila denetan dituzte taldeak. Horrek nagusien taldea maila oneko jokalariekin etengabe elikatze-ko aukera eskaintzen die. Gaur egun nagusiak euren mailako liderrak dira, bost partidutik bost irabazita.

Iaz sortu zuten emakumeen talde nagusia Ezkurdin. Eskailerari falta zitzaion maila gehitu zioten. Gaur egun 11 urteagaz klubera batzen diren gaztetxoek badakite egunen batean nagusien taldean aritzeko aukera izan dezaketela, eta hori pizgarri bat da. 33 neska gaz hasi ziren; hurrengo urtean 60 zituzten, eta aurten 80 dabilta: 18 haur-kategorian, 21 kadeteetan, 19 gazteetan eta 22 nagusietan. Hainbat gaztek debutatu dute

nagusien taldean. Orain aste-buru bi hat-tricka sartu zuen Laura Romero da horietako bat. Gazte denen errendimendua goraipatu du Julen Bedoya entrenatzaileak: "Ausardia handiaz jokatzeko dute. Kontuan hartu behar da kluba gaztetatik ezagutzen dutela, urte asko daramatzate eta klub bat baino gehiago familia bat gara. Hori igarri egiten da".

Beraz, taldea uzten dutenen ordezkioa etxean bertan aurkitu

dezakete. "Askok esaten digute: ezagutzen duzue talde honetako jokalariei hau? Deitu diozue? Ezagutzen ditugu eta deitu izan diogu baten bati, baina, oro har, ez dugu inor ekarri beharrik. Etxean duguna baino hoberik ez dago inguruan".

Hain justu, normalagoa da kontrako norabidea: "Aurten bost jokalariei Eibarrera joan dira, eta Irene Ogiza Athleticetara dabil. Horrek poza ematen du, egiten ari garen lanaren erakusle delako. Ezkurdi jokalarien erakusleioa da gaur egun".

## Nagusia, bikain

Nagusien taldeak orbanik gabeko denboraldia darama orain arte: bostetik bost garaipen. Lider daude. Igoera fasera sailkatzea eta iazko laugarren postua hobetzea dute helburu.

Azpimarragarria da Nayade Barrutietak eta Jenifer Rubiok erasoan osatzen duten bikotea. Bizkaiko mailako goleatzaile nagusiak dira, zortzina golekin. Ezkurdiren 23 goletatik 16 sartu dituzte. Goleatzaile petoak dira. Iaz 50 gol sartu zituen Barrutietak, eta 30 bat Rubiok.

## ADITUAREN TXOKOA

**GARAZI SAMPEDRO**

Mendi lasterketa



## Oreka

Betidanik txunditu izan nauten naturaren handitasunak eta bere zati txiki bat baino ez den giza gorputzak.

Gure gorputzak baditu tresnak erasoak neutralizatu eta kalteak osatzeko, uste baino makina hobe baten jabe baikara. Baina, beharbada ezjakintasunagatik, ez diogu merezitako tratua ematen. Konplexua da oreka lortzeko dauden trikimailu biokimikoak ulertzea, baina ez da zertan zientzian aditua izan, duen garrantziaz jabetzeko. Orekak osasuna dakarrela ulertuz gero, badakigu desoreka osasunaren antonimoa dela; desoreka egoerak gaixotasunetatik hurbil daudela, alegia. Agian, hirugarren pertsonatik lehen pertsonara aldatu behar genuke ikuspegia: pentsa baino makina hobe gara, eta, tamalez, ez dugu gure burua merezi bezain beste zaintzen.

Logikak esaten du desorekei buelta emateko energia handiagoa behar dela oreka mantentzeko baino. Zergatik, orduan, norberari etengabe eraso egite hori? Gorputzak erasotzat har ditzake drogak eta sedentariismoa, besteak beste. Baina baditugu ez hain agerikoak diren hainbat etsai. Gero eta jende gehiagok egin ohi du kirola, itxuraz, ariketa fisikoren onurez baliatzeko. Askotan gainera, jateko ohi-turak aldatzen dituzte askok kirola egiten hastearrekin bat. Osasunaren izenean, elikadura desoreka eta kirol gehiegikeriak ikustera ohitzen hasiak gara, zoritxarrez.

Burua ere gorputza dela ahazten denean dator arazoa. Gogoratu dezagun; gehiegi eta gutxiegi ez dira oreka hitzaren esanahian kabitzen.

## Igor Azpiri Olazarreko final-laurdenetan izango da

Sarasak eta biek 22-6 irabazita lortu dute sailkapena

**> PILOTA** J.D.  
Olazar pilotari txapelketak Durangaldeko ordezkari bat izango du final-laurdenetan: Igor Azpiri elorriarra. Sarasak eta biek joan zen egunean lortu zuten sailkapena, Garcia eta Etxegoin 22-6 menderatuta. Partidu hasiera parekatua izan zen, baina 9-4ko-

tik aurrera ia zuzenean joan ziren 22ra.

Bestetik, final-laurdenak martxan dira. Datorren egunean, 21:30ean, Alberdik eta Lerenak indarrak neurtuko dituzte lau t'erdian. Binaka, Errandona eta Olaizola Larrañaga eta Perezen kontra ariko dira.

## Berrizen San Antonio pilota txapelketa hasiko dute gaur

Hiru mailatan 35 bikotek parte hartuko dute aurten

**> PILOTA** J.D.  
San Antonio pilota txapelketa gaur hasiko dute Berrizko pilotalekuan. 19:30etik aurrera hirugarren mailako hiru neurketa eta bigarren mailako bat jokatuko dituzte.

Oizpe pilota elkarteak antolatzen duen txapelketak 35

bikote izango ditu aurten, hiru mailatan banatuta, eta gutxienez barikuro jokatuko dituzte partidua. Finalak urtarilean jokatuko dituzte, Berrizko San Antonio jaien barruan. Joan zen urtean Berasaluze IX.ak eta Loidik irabazi zuten lehen mailako finala.

**Eraikuntzarako materiala**  
**MACOBER**  
**Zeramika eta gresa**  
Eitua Industriagunea, 66 **BERRIZ**  
Tel.: 946 827 890 [macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)

**Arribe**  
**Liburudenda**  
Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**  
Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.  
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.  
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.  
Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU DOAN !**





Innovation  
that excites

**3** URTEKO  
MANTENTZEA,  
BERMEA ETA  
LAGUNTZA



**NISSAN X-TRAIL**  
**23.600 €\*** TIK AURRERA

**7 ESERLEKUREKIN ETA SABAI  
PANORAMIKOAREKIN**

**YOU+ NISSAN**  
GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.

- Kortesiazo ibilgailua doan
- Zerbitzuko prezioak berdinduta
- Nissan Assistance bizi osorako
- Ibilgailuen azterketa doan

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen:  
[nuncaconducirassolo.es](http://nuncaconducirassolo.es) edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

## GAURSA

**Arriandi Auzoa, 12 - 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000**

Kontsumo mistoa: 6.2 l/100km. CO<sub>2</sub> isurpenak: 145 g/km.

\*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraloa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan, 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren araberrako estandarrak dira. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAren bidez finantzatzen badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2016/11/30 arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskaintako ibilgailuarekin.



# “Iturrigorriren kontrako garaipena inflexio-puntu bat izan zen guretzat”

Abadiño futbol taldea jaitsiera postuetatik irten da azken partidu biak jarraian irabazita

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Jorge Valdanoren “futbola gogo-aldarte bat da” esaera ezagunak berba gutxitan definitzen ditu jokalariek euren errendimenduan izaten dituzten gora-beherak. Abadiño futbol taldea da esaera horren adibide bat. Orain aste bi garaipen barik eta sailkapeneko zuloan zegoen taldeak, ustekabean, orduko lider-rra menderatu zuen etxean (4-2), ikuskizuna eskainita, gainera: “Garaipen hura inflexio-puntu bat izan zen guretzat”, onartu du Jon Sanchez (Durango, 1986) taldeko kapitainak: “Animatu egin gintuen emaitza horrek. Harrezkero, beste animo bat nabari da taldean eta entrena-menduetan”.

Iturrigorriren kontrako garaipenak hainbat harresi eraitsi zituen. Alde batetik, zortzigarren jardunaldian denboraldiko lehen garaipena lortu zuten. Bestetik, ordura arte gol bakarra sartuta zegoen Abadiño, eta lau egin zizkion Iturrigorriri, ordura arte gol bat bakarrik jasota zetorren liderrari. Joan zen asteburuan, aldiz, Gurutzeta azken sailkatua 0-1 menderatu, eta jaitsiera postuetatik irten ziren. Partiduko gol bakarra Sanchezek sartu zuen, eta Iturrigorri-



Gurutzetaren kontrako partiduan garaipenaren gola sartu zuen Jon Sanchezek joan zen asteburuan.

ren kontra ere beste behin zultu zuen aurkariaren atea.

### Belaunaldi berria

Iaz liga ona burutu ostean, hainbat jokalaria goragoko mailetako taldeetara joan dira. Klubak harrobira jo du hutsuneak osatzeko. Ondorioz, aurten oso talde gaztea dute. Ilusio eta gogo handia, baina esperientzia gutxi. Horregatik, taldeko beteranoei erantzukizuna bere gain hartzea egokitu zaie. Sanchezek berak, esaterako, aurrelari eman

ditu bere ibilbideko urterik gehienak, baina aurten punta erdi lanetan dabil gehienetan: “Goian egonda jokoan parte hartzea gaitzagoa da, baloia gutxiago ukitzen dira. Beteranoagoak garenok jokoan gehiago eragin dezakegu, erdirago jokatuta. Oraingoz gauzak ondo egiten ari naizela uste dut, eta pozik nago”, dio Extremeñon hasi eta Galdakaotik igaro ostean orain zazpi bat urte Abadiñon finkatu zen jokalaria. Gartzten Telletxea entrenatzailearen lana ere

azpimarratu du: “Momentu txarretan gudan sinestu du, eta indar handia transmititzen digu. Hori oso inportantea da guretzat”.

Zapatuan, 15:30ean, Otxarkoaga taldearen kontra jokatu dute, Astolan. Azken aurreko sailkatuaren kontra bolada onari eusteko aukera ona dute: “Badakigu partidu gaitza izango dena, baina gure helburua irabaztea da. Momentu onean gaude, eta hiru puntuak ditugu buruan”.

## Doako mendi bizikleta martxa Zaldibarren

34 eta 27 kilometroko ibilbide bana daude aukeran



Aurreko aldi bateko parte-hartzaileak martxan. Lehior Elorriaga

**>BIZIKLETA MARTXA** J.D. Zaldibarko 15. Mendi Bizikleta Martxa egingo dute domekan, Lagun Artea txirrindulari elkarteak eta udalak antolatuta. 10:00etan hasiko da udaletxe pareko plazatik. Urtero legez, bi ibilbide daude aukeran: 34 kilometroko bat, 1.200 metroko desnibelagaz, eta 27 kilometroko beste bat, 800 metroko desnibe-

lagaz. Izen-ematea doakoa da, eta bi modutara egin daiteke: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunearen bidez, eta egunean bertan martxaren aurretik.

Martxa amaitzen denean, salda eta pintxoak egongo dira parte-hartzaileentzat. Horrez gainera, askotariko zozketak egingo dituzte martxan aritu direnen artean.

## Abadiñoko Txopoa kritiko udal taldeagaz

Matienako kiroldegiko erabilpena banatzerakoan zein tratuan “gutxietsita” sentitzen dira

### > ARETO-FUTBOLA

J.D. Areto-futboleko talde berria “gutxietsita” sentitzen da udal taldearen partetik. Kiroldegia erabiltzeko ordutegiak zehazterako orduan sentitu dituzten “traba eta gutxiespenak” kontatu dituzte sare sozialetan.

Ikasturtea hasi ostean, entrenatzera zihoazen bakoitzean “azpiegiturak okupatuta” aurkitzen zituztela diote taldekoek. Urrian liga hasi eta “ez geneukan entrenatzeko tokirik”. Arazoa bideratzeko, udaleko kirol zinegotziagaz eta kiroldegiko beste erabiltzaile batzuekin batzarra proposatu zieten, baina batzarrera ez zen udal ordezkariarik agertu; kiroldegia kudeatzen duen Emtesporteko ordezkariak bitartekari lana egin zuela diote. Gainera, batzar

horren bidez, udalari hainbat proposamen helarazi zizkioten, eta oraindik ez dute erantzunik jaso. Egoera horien aurrean, “indargabe eta gutxietsita” sentitzen dira: “Ulertzen ez dugun jerarkia bateko behealdean sentitzen gara”.

**Arazoa konpontzeko lanean** Eneko Etxebarria kirol arloko zinegotziak azaldu duenez, “Abadiñoko Txopoaren beharrazane erantzuteko lanean gabilta”. Orain federatu gabeko talde batek hartuta daukan erabilera ordua federatuta dagoen Txopoari gehitzeko pausoak ematen ari dira. Era berean, Txopoak aipatzen duen batzarraren gainean, “inork ez zidan gonbiterik edo bertaratzeko deirik egin”, argitu du.

| AGENDA                                                                                                                                                                                              |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| > FUTBOLA                                                                                                                                                                                           |
| <b>BIGARREN B MAILA</b> (gizonak)                                                                                                                                                                   |
| <b>Amorebieta - Barakaldo</b><br>· Zapatuan, 17:00etan, Urriksen.                                                                                                                                   |
| <b>HIRUGARREN MAILA</b> (gizonak)                                                                                                                                                                   |
| <b>Durangoko Kulturala - Beasain</b><br>· Zapatuan, 16:45ean, Tabiran.                                                                                                                              |
| <b>EUSKAL LIGA</b> (emakumeak)                                                                                                                                                                      |
| <b>Elorrio - Leioako emakumeak</b><br>· Domekan, 11:30ean, Eleizalden.                                                                                                                              |
| <b>MAILA GORENA</b> (gizonak)                                                                                                                                                                       |
| <b>Abadiño - Otxarkoaga</b><br>· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.                                                                                                                                       |
| <b>LEHENENGO ERREGIONALA</b> (gizonak)                                                                                                                                                              |
| <b>Zorrontzako - Ermua</b><br>· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.                                                                                                                                       |
| <b>Ezkurdi - Ugeraga B</b><br>· Zapatuan, 18:45ean, Tabiran.                                                                                                                                        |
| <b>LEHENENGO ERREGIONALA</b> (emakumeak)                                                                                                                                                            |
| <b>Ezkurdi - Adiskideak</b><br>· Domekan, 15:30ean, Tabiran.                                                                                                                                        |
| <b>BIGARREN ERREGIONALA</b> (gizonak)                                                                                                                                                               |
| <b>Zaldia B - Arratia B</b><br>· Domekan, 11:00etan, Solobarrian.                                                                                                                                   |
| <b>Berriz - Otxarkoaga B</b><br>· Domekan, 12:00etan, Berrizburun.                                                                                                                                  |
| > ARETO-FUTBOLA                                                                                                                                                                                     |
| <b>HIRUGARREN MAILA</b> (gizonak)                                                                                                                                                                   |
| <b>Presion Break - San Jorge</b><br>· Domekan, 12:00etan, Berrizburun.                                                                                                                              |
| <b>EUSKAL LIGA</b> (gizonak)                                                                                                                                                                        |
| <b>Elorrioko Buskantza B - Vitoria-Gasteiz</b><br>· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.                                                                                                     |
| <b>LEHENENGO ERREGIONALA</b> (gizonak)                                                                                                                                                              |
| <b>Mallabia B - Usansolo</b><br>· Domekan, 15:35ean, Zaldibarko kiroldegian.                                                                                                                        |
| <b>Elorriko Txiki - Zurbarán</b><br>· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko kiroldegian.                                                                                                                   |
| > SASKIBALOIA                                                                                                                                                                                       |
| <b>EUSKADIKO LEHEN MAILA</b> (gizonak)                                                                                                                                                              |
| <b>Tabirako Baqué - Disdira Bitxitxegia</b><br>· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian.                                                                                                          |
| <b>LEHEN ERREGIONAL BEREZIA</b> (gizonak)                                                                                                                                                           |
| <b>Zornotza - Jesuitinas</b><br>· Domekan, 20:00etan, Ixerbekoan.                                                                                                                                   |
| > PILOTA                                                                                                                                                                                            |
| <b>SAN ANTONIO TXAPELKETA</b>                                                                                                                                                                       |
| <b>- Pinpo-Pira / Kamara anaiak</b><br><b>- Josu-Urko / Mikel-Troya</b><br><b>- Kristian-Txolo / Gaizka-Pilas</b><br><b>- Larri-Totopo / Agi-Urbe</b><br>Barikuan, 19:30ean, Berrizko pilotalekuan. |





**BAUTISTA**  
**MUEBLES Y DECORACIÓN**

LAUDIO - ABADIÑO

**BLACK FRIDAY**

**10 egunean**  
**gure prezioak sutan!**

**10 egun %25 eko deskontuarekin**  
**10 egun prezio bereziekin. Azaroaren 30era arte soilik**

Zure erosketan %100 finantzatzen dugu, eta 2017ko martxoan hasiko zara ordaintzen:  
10 kuota sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

**☎ 94 672 77 00    [www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)    [info@bautistamuebles.com](mailto:info@bautistamuebles.com)**

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski merkataritza-gunearen ondoan)



## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

### ETXEBITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO.** Errotarituena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

**DURANGO.** Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriatua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalel bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA.** 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA.** Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ.** Txalela 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berriatutako. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatutako.

**BERRIZ.** Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguessado.com](http://www.inmoduranguessado.com)  
[inmoduranguessado@gmail.com](mailto:inmoduranguessado@gmail.com)

### ETXEBITZAK SALGAI

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- Etxebizitza DOTOREA! 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. Garajea eta trastelekua. **239.900€.**

#### TROMPERRI



- 99 m2 eraikita. 4 logela, egongela zabal, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Kanpora begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Etxebizitza terraza komunitarioa dauka teilatuan. Honez gain, txoko komunitario handi bat ere badauka. **233.900€.**

#### PINONDO



- 67 m2 erabilgarri. Ikuspegi ederrak. Dena kanpora begira. Balkoia itxia. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna. Berogailuarekin. Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. **LEHEN 195.000€ / ORAIN 175.000€.**

#### INTXAURRONDO



- 2 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Oso egoera onean. **115.000€.**

#### GOIENKALE



- 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa eta komuna. Berogailua gas naturalarekin. **114.000€.**

#### MUNTSARATZ (ABADIÑO)



- Babes ofizialeko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoia. Garajea eta trastelekua. Altxariz hornitua **179.000€.**

[www.inmoduranguessado.com](http://www.inmoduranguessado.com)

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

### AUKERA

- DURANGO. Erdi berria. Apartamentua. **139.000€.**
- MATIENA. 3 logela. Komuna. Berriatua. 2 Balkoi. Eguzkitsua. **143.000€.**
- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Dena berriatua. **115.000€.**
- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. **85.000€.**
- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. **115.000€.**
- BERRIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Balkoia. Igogailua. Guztia berriatua. **115.000€.**
- ABADIÑO. 85 m2. 2 logela. Komuna. Egongela. Terraza. Sukaldea. Trastelekua. Garajea. **164.000€.**

### ETXEBITZAK SALGAI

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 Terraza. Igogailua. **135.000€.**
- ZALDIBAR. Erdialdean. 2 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. 45 m2-ko terraza. Garajea itxia. **148.312€.**
- IURRETA. 3 logela. 2 komun. Egongela. Terraza. Sukaldea. Eguzkitsua. **180.000€.**
- M. TORRE. 113 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. **220.000€.**
- ANDRA MARI. 112 m2. 4 logela. Egongela. Trastelekua. **140.000€.**
- F.J. ZUMARRAGA. 110 m2. 4 logela. Sukaldea-despentsa. Egongela. Galeria. **169.000€**(negoziagarria)
- C/ ASKONDO. 95m2. 3 logela. Komuna. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Eguzkitsua. Berriatua **195.000€** neg.
- TRONPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. **233.900€.**
- ATIKOA. Terraza eta guzti, 80 m2. 3 logela. 2 Komun. Egongela. Sukaldea. Esekutokia. Trastelekua eta Garajea. **250.000€.**
- J. M. ALTUNA. 100 m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **269.000€.**
- SAN ROKE: BERRIA. Pisu altua, 80 m2-koa. 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela zabal. Ganbara. Garajea aukeran. **247.000€.**
- SAN AGUSTINALDE. Erdialdean. 103 m2. Berriatua. 3 logela. Komuna. Terraza. **260.000€.**
- MATIENA. 3 logela. Komuna. **158.000€.**
- OLLERIA. 100 m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. **265.000€.**
- M. TORRE. 134 m2. 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje. **270.000€.**
- IURRETA. Maspe. 3 logela. Igogailua. **110.000€.**
- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. **125.000€.**
- F.J. ZUMARRAGA. 100 m2. 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. **236.000€.**
- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. **270.000€.**
- AMOREBIETA. 70 m2. 2 logela. Komuna. Berriatua. **160.000€.**
- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko prest. **85.000€.**

### LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- SAN FRANCISCO. 160 m2. Egokitua. **210.000€.**
- ZALDIBAR. Salgai. Ganbara zabalak. Egokia bulegoa edo estudioa izateko. EKONOMIKOA.
- F.J. ZUMARRAGA. 114 m2. SALGAI. **200.000€.**
- IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. **500€.**
- KOMENTUKALE. 50 m2. Guztia jarrita. **85.000€.**
- DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. **186.000€.**

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 946 217 902  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)



# anboto.iragarkilaburrak.com

|                  |                 |
|------------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK     | 5 IBILGAILUAK   |
| 2 TEKNOLOGIA     | 6 HARREMANAK    |
| 3 LANA/NEGOZIOAK | 7 AISIA/KIROLA  |
| 4 DENETARIK      | 8 FAMILIA/ETXEA |

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
